

Karkara

karkara.eus

 Orioko eta Aiako aldizkaria · 2017ko urtarrilaren 27a · 380 zenbakia



Orio eta Aia aurrez aurre

Herriartekoa da aurtien Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa. Izango al dute Aiako eta Orioko taldeek elkarren artean lehiatzeko aukera?

3
Puntua jarrita
Ainhoa Mateos

13
Erreportajea
Azoka

20
Argazkiak
Danborrada

29
Adarretatik helduta
Imanol Zinkunegi

ORIOKO EUSKALITZ-TOBILLA



ORIO

ORIOKO
HERRI
IKASTOLA

gara



MATRIKULAZIOA:
urtarrilaren
30etik
otsailaren
10era

GURASOENTZAT INFORMAZIO BILERA: Urtarrilak 18, asteazkena, Batzar Aretoan; 17:00etan euskaraz, eta 18:30ean, gaztelaniaz.

ATEAK IHEKITAKO EGUNAK: Urtarrilak 18, asteazkena, 17:00etatik aurrera (DBH).
Urtarrilak 21, larunbata, 11:00etatik aurrera (HH2).

BULEGO ORDUTEGIA: 08:30-13:30 / 14:30-18:30 Tel. 943 834 704 / 943 894 380

e-posta: orio@ikastola.eus
www.oriokoikastola.eus



380

Karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria

Kultur etxea
20810 Orio
943 83 15 27

karkara@karkara.com
www.karkara.eus

Editorea

Karkara taldea
kultur elkarteak

Erredaktore burua
Miriam Garcia

Erredakzio taldea

Jon Agirresarobe
Onintza Aiestaran
Lore Berasaluze
Iñigo Exposito
Jon Garate
Elizabete Manterola
Intza Unanue
Rikardo Uzkudun

Publizitatea

Sonia Albizu

Ale honetako kolaboratzaileak

Arrate Illaro
Peru Iparragirre
Iñaki Iturain
Garbiñe Manterola
Ainhoa Mateos
Imanol Zinkunegi

Diseinua

Saioa Perona

Banatzaileak

Ibon Berasaluze,
iñigo Fernandez (Orio)
Eli Irureta (Aia)

Inprimategia

Gertu Koop. E. (Oñati)
Lege gordailua SS-346/90
ISSN 1132-1105
Tirada 3.450 ale

KARKARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota iritzien erantzukizunik. KARKARAN argitaratutakoa berrieman daiteke, osorik edo zatika, baldin eta iturria aipatzen bada.

PUNTUA JARRITA

AINHOA MATEOS OLIDEN (DOINUA: GOGOAN DAUKAT EZ DU ASPALDI)

Gabonetako klasiko bat da selekzioa jokatzeko

pasa berri den edizioa hautsak ari da harrotzen harmailak hutsik, pankartarik ez ta nafarrak alboratzen. Bulegoetan has daitezela gaiaz serio hausnartzen, FIFA dateta aldatze horrek ez baitu ezer aldatzen.

Jokalariek nahiz ta baduten borondatea jarria mutil futbolaz harago doa amesten dugun herria. Alda ditzagun fokoak eta sortu formatu berria indartu baloi, pilota, makil, txirrinda eta harria herri librean izan dezagun txuri, berde eta gorria.



Hurrengoari puntua: Amaitu dira danbor soinuak badatoz ihauteriak

TOKIKOM

2015 **Bikain**
Bikain
Bikain

Publizitatea kontratazeko:

KARKARA
688 859 682 (Sonia)
publizitatea@karkara.com



karkara.eus

LAGUNTZAILEAK



Aiako Udala



Orioko Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILAK
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Kultura Batzordeak urte berri ona eta zorionik beteena opa dio Orioko herriari

Musika Eskolak eta Salatxo abesbatzak emandako saio zoragarri batekin hasi genituen Gabonetako oporrak. Mila esker Unai apaizari Hallelujah zoragarririk horren parte izateagatik.

Eskerrik asko, baita ere, Harribil dantza-taldeak antolatutako Herribil emanaldian parte hartu zutenei ere: lan bikaina egin zenuten, herritarrok gozatu genuena.

Orioko Herri Ikastola eta Zaragueta-ko ikasle, irakasle eta gurasoek, berriz, Gabon eguneko goiza alaitu zuten kalez kale, urtero bezala, eta merezi dute gure aipamena eta esker ona.

Zeresanik ez Lera taldeak ere, Mari Domingi eta Olentzeroren festa herri-ekartzeagatik: txalo bero bat zuen-tzat eta beste bat Arkupe elkartearen-tzat, arratsalde hotza txokolatearekin berotzeagatik.

Talai Mendi elkarteari ere txalo bero-bero bat eta eskerrik asko, heldu eta txikiengan ilusioa sortzeagatik.

Udaltzainei ere eskerrak, ekitaldi guztietan beren laguntza beharrezkoa izaten delako, eta, baita ere brigadari, bulego teknikoari, kultur etxeko arduradunari, euskara eta kultura teknikariei eta, bide batez, Udaleko langile guztiei ere, bakoitzak bere arloan, nahiz nabarmendu ez, parte hartzen dutelako ekitaldi hauek guztiak aurrera ateratzeko.

Ez genuke nahi inor kanpoan utzi eta, horregatik, eskerrak eman nahi dizkiegu Orioko talde eta eragile guztiei eta boluntario guztiei, denon artean egun berezi hauek bakean eta giro ederrean ospa ditzagun egin duten lanagatik. Ekitaldi horien atzean lan asko dago eta, lan horren atzean, oriotarrak zaudete, zuen laguntza gabe ezinezkoa izango litzateke hau guztia aurrera eramatea eta, horregatik, gure txalorik beroena zuek guztiontzat.

Urte berri ona opa dizuegu denoi. Seguru gaude 2017an ere guztion laguntzarekin kultur agenda erakargarri bat lortuko dugula, oriotar guztiok parte hartzeko modukoa.

Eta, beti bezala, saiaturako gara hobetu

beharrekoak hobetzen. ■ **Lourdes Salsamendi.** Kultura batzordeburua

Kontuak argituz

Nahiz EAJk kontrakoa esan, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak dioen moduan, aurreko legealdiko udal gobernuak egindako gestio ona aldarrikatze-
ra gatoz berriro. Bereziki, diru publiko-
en erabilera egiterakoan izandako
zuhurtzia azpimarratu nahi dugu.

EAJk honela esan zuen 2014ko mar-
txoaren 17an: *En los primeros 30 meses de gobierno, la tesorería municipal ha menguado, hay 6,4 millones menos de lo que dejamos nosotros.*

Adierazpen horiek zirela eta, hu-
rrango plenoan herritarren eserlekue-
tatik honako galdera egin zitzaien
EAJko zinegotziei: *Jakinik diru horiek erabili ahal izateko Plenoko akordioa beharrezkoa dela, esan dezakezue non gastatu diren?*

Ezin izan zuten erantzun, baina guz-
tia argitzeko konpromisoa hartu zu-
ten. Oraindik itxaroten ari gara.

Gu saiatu gara hau guztia argitzen,
eta datuak hauexek dira:

- 1.- 2.225.000 euro erabili ziren Arraunetxeko obra eta ekipamendua estaltzeko. Kostua zero izango zuela zioen EAJk.
 - 2.- 130.000 euro, hondartzako etxe-bizitza tasatuak konpontzeko, bere garaian ez baitziren behar bezala bukatu.
 - 3.- 220.000 euro, EAJk egindako gestio txarraren ondorioz, Orioko familia batekin izandako auzian, galdutako sententzia ordaintzeko.
 - 4.- 223.000 euro, 2007-2011ko EAJren agintaldian Foru Aldundiari utzitako zorrak kitatzeko.
- Aurreko agintaldian, beraz, 2.798.000 euro erabili behar izan ziren, guztira, EAJk utzitako zorrak estaltzeko.

Altxortegiko diruak beste bi partida-
tarako ere erabili ziren:

- 1.- 60.000 euro, Etxeluze erosteko.
- 2.- 680.000 euro, kanpineko taberna berri eta bungalowak jartzeko. Inbertsio horiek ez balira egin, ezin izan-
go ziren 274.000 euroko irabazi gar-
biak lortu 2016. urtean.

Azken Karkaran EAJk esan zuen

udal gobernuarentzat erronka handia dela EH Bilduk egindako kudeaketa txarrari buelta ematea. Agintaldi ho-
netako lehen erabakian liberatutako
politikoen soldaten gastuak %72 igo-
tzeko saiakera egin zuen. Argigarria da,
benetan. ■ **Orioko EH Bildu**

Mandalara

Bizi-bizi dabil Mandalara sorreratik.
Maiztasunez antolatzen dituzte ikas-
taroak, hitzaldiak eta bestelakoak, eta
badirudi jasotzen duten erantzuna ere
aparta dela. Jendea esker onez doa an-
tolatutako ekintzetara eta poztekoa da.

Ni neroni ez naiz joan izan orain ar-
tean, baina herriko beste edozein el-
karterekin gertatzen zaidan bezala,
haien berri izatea gustatzen zait: zer-
tan ari diren, zer antolatu duten, noiz-
ko... galtzear dagoen espezie batekoa
dirudit batzuetan; kartelak irakurzalea
naiz. Eta gaztelera hutsezko kartelek
min egiten didate. Badakit Mandalara-
ren kasuan hizlariak eta abar erdal hiz-
tunak direla, eta hor ez dago ezer asko
egiterik; baina kartelak elebitan, eus-
karaz eta gaztelera, jartzea eskertuko
genuke. Heriotzari eta bizitzari buruz
euskaraz jaso nahiko nuke informazio
hori. ■ **Herritar bat.**

Kotxe markatzaileari edo markatzaileei

Azken astean, etxeko obrak direla eta,
nire ibilgailua Alkar Elkartearen au-
rrekaldean utzi behar izan dut, inolako
oztopo izan gabe kaleko ibilbidean.
Baina hara non, bi egun desberdinetan,
nire kotxearen kanpokalde markatu-
ta azaldu zaidala, gogoz eta benetan
egindako markak. Mesedez eskatu
nahi diot hau egin duenari edo dutenei,
ibilgailua hor edukitzeak oztopo egiten
badio/e, esan diezadala/diezatela au-
rrez-aurre eta ez bere kabuz hartu neu-
rriak, izan ere, ibilgailuak urte batzuk
izan arren, berriaren zerbitzua egiten
bait dit. Mila Esker. ■ **Marije Zulaika**

Bazkide izateko aukera

Jakinarazi nahi dugu, San Juan Elizpe
Elkartean, bazkide izateko aukera da-

goela. Norbait interesaturik egongo balitz, jar dadila harremanetan elkar-teko batzordearekin.

■ **San Juan Elizpe Elkartea**

Eskertza

San Juan Elizpe Elkartea osatzen dugun guztiok gogora ekarri nahi ditugu 2016. urtean hil diren Eusebio Aldaz Garro eta Javier Arruti Izeta, gure oho-rezko bazkideak. Horregatik, otsailaren 12an, haien omenez, meza izango da 12:00etan Orioko elizan.

■ **San Juan Elizpe Elkartea**

Muntoko aparkalekuan isuna

Badira egun batzuk Muntoko aparkalekuan utzitako hainbat autok isunak jaso dituztela. Badirudi sartu eta eskuin aldean paraleloan aparkatzea ez dagoela baimenduta.

Horren inguruan esan nahi duguna da, ez dagoela inongo seinalizaziorik non aparkatu adierazten duena, ezta inongo marrarik ere.

Uste dugu, isunak jartzeko gai bagara, Muntoko aparkalekuaren egoerak ere egokia izan beharko lukeela: lurra-aren asfaltatze eta seinalizazio egokiak, alegia. ■ **Herritar batzuk**

Gardentasunik ez

Gardentasunik gabeko kudeaketa eta informazio falta dira Aiarrenganako

errespetu falta garbienak.

Edozein herritarrek egiaztatu ahal izango du EH Bilduk bide eta modu egokian egin dituela informazio eskaraz azken abuztutik hona. Hainbat Batzorde eta bileratan jarri dugu zalan-tzan Udalak Murias enpresarekin kooperatiba etxearen inguruan egindako kudeaketaren legaltasuna. EAJ-PNV-ko Udal Gobernuak eta Nekane Arrizabalagak, ordea, azken hilabeteetan, ez dute gai hau modu egokian argitzeko inolako prestutasunik erakutsi. Besteak beste honako pausuak eman ditugu:

1-Plazako kooperatibaren eskriturak eskatu genituen, plazan obrak egiten hasteko legez ezinbestekoak direlako. Zergatik? Obra baimena eman zion E-AJ-PNVren Udal gobernuak, baina, eskriturarik ez zegoelako. Honetan kasu egin ziguten.

2- Bi ondasunen balorazio tekniko- en dokumentuak (legez ezinbesteko baldintza) eskatu genituen eraikinen balore erreala ziurtatzeko. Aiarron, jabetza publikoko etxe baten prezio juxtua zein den ziurtatu gabe, nola egin liteke truke juxtua? Abuztutik, ez dizki-gute oraindik erakutsi.

3- Justu orain, ez lehenago, ez beranduago. Muriasek ganbarak etxebizitzalegal izateko eskaera egin berritan, tramitatu eta onartu du Udal Gobernuak eskaera. Badirudi aiarentzat baino... enpresentzat soilik ari garela lanean.

4- Prozesua itxi baino lehenago, pausu batzuk atzera egin eta gai guztia modu zuzen batean birplantatzeko

eskaera egin genion Nekane Arrizabalagari, inolako erantzunik jaso gabe bere aldetik.

Argi dugu, Aiak ez duela gai honetan ere Udal Gobernuak eginiko kudeaketa merezi. Gardentasunik gabeko kudeaketa eta informazio falta hauek dira aiarrenganako errespetu falta garbienak.

Esanguratsua, era berean, PNV-ren Udal Gobernuak ez duela informatu edo argumentatu, zertan *kakaztu* dituen EH Bilduk proiektu hauek.

Nekane Arrizabalaga alkateari, udal-teknikariei eta Udaleko beste ordezkariari adierazi diegun bezala, prozedura zuzena eramanda emaitza bera lortu zitekeen arazorik gabe. Beste gaietan bezala, EH Bilduren konpromiso finkoa, herriaren interesen eta ondasunen defentsa izan baita hasieratik.

Hau guztia ikusita, argi utzi nahi dugu EH Bilduren partetik eman diren pausuak eta emango direnak ez direla ez eskolaren ezta Lur-Alkartasuna Kooperatibaren aurkakoak. Aiarrei EAJ-PNVren Udal Gobernuarekin gertatzen dena azaltzera eta informatzea gure ardura da. Puntu honetara iritsita EH Bilduk Eusko Legebiltzarrean Aiala-ko Udalaren kudeaketa Herri-Kontuen Euskal Epaitegira eramatea erabaki du eta eraikinaren eraisketa gertatzea eskatu diogu fiskaltzari, balorazio judiziala egin ahal izan dadin.

■ **Aiako EH Bildu**

ZORIONAK!

Hondakinen mahai berriz martxan

Urtea pasatxo, 2015eko udal hauteskunderiez geroztik, egin du Hondakinen Mahaiak elkartu gabe. Zaborraren kudeaketak duen garrantzia ikusita, luze egin dute bildu gabe. Berriz ere bildu dira, ordea, besteak beste, bailarako talde politiko guztien adostasunez, Udal Elkartearen onartutako hondakinak biltzeko sistema berriaz jarduteko.

Gaiari gogoz heltzea opa diegu, Orioko birziklatze tasak nabarmen gora egiteko bideorria marraz dezaten.

HILDAKOAK

■ Hilabete honetan ez dago daturik

JAIOTAKOAK

■ Hilabete honetan ez dago daturik

EZKONDUTAKOAK

■ Hilabete honetan ez dago daturik

Eskela edo urteurreneko gogoangarria KARKARAN jarri nahi baduzu, deitu gure telefonora:
943 83 15 27



Bi Suediar Aian izan ziren 1963an dokumentala grabatzen. NONTZEBERRI

Ur goiena ur barrena

“Baziren korrikalari batzuk behekoa gutxiegi eta arratsaldean gora igo zirenak, Aiako lasterketa egitera.”



Familian egin zuten batzuk urteko azken korrika saioa. KARKARA

Segurasko, Gabon jaiak hasi bezain pronto mezu zaparrada bat jasotzen hasi ginen mugikorretan. Klase guztietakoak jasoko genituen, zorionak ematen dituzten arbolatxodun postalak, bestelako bideo prefabrikatuak, Urkulluren ahotsa simulatzen zuten orotariko ahots grabazioak.... eta egun batzuk geroago, Getariako balearen bideoak ere bai, erregalo.

Zer esana eman zuen Bilboko Olentzero eleganteak sare sozialetan, Meltxor erregearen tankera handiagoa zuelako ikazkin tripontzi batena baino. Aian zer esana eman duena, *Basker* dokumentalaren emanaldia izan da, 1963an herriko plazan grabatu zutena.

Urtearen azken egunean etorri ziren San Silvestre eguneko lasterketak. Orion goizez, eta Aian arratsaldean. Baziren korrikalari batzuk behekoa gutxiegi eta arratsaldean gora igo zirenak Aiako lasterketa egitera, ambulantiaren beharrik gabe. Sasoia galanta batzuen.

Bada, egun horien bueltan, jaso genuen gure Karkarako whatsapp taldean, mezurik desberdinena. *Ur Goiena Ur barrena* zioen mezuaren izenburuak, eta Urdianen eusten dioten ohitura bat azaltzen zuen, bideo eta guzti.

Antza, urte hitza ur hitzetik dator, eta hori dela eta, urte zahar gauean iturrietatik pitxarra bete eta ura banatzen dute herriko gazteek urte berri ona opatzeko. Etxez etxe abesten dituzten koplak horien hitzak hartuta egin zuen Olatz Zugastik kantatu bat, iaz.

Ba, holaxe, ur zaharrak joan eta ur berriak etortzen diren gisan, gure lankide izan zen Patxi Urangak eta bere bikote Olatz Lasagabasterrek haurra izan zuten, Xhua, Patxiren aitona Joxe hil zen egun berean.

Karkara ur berriaren dator urte berri honetan, herriko iturrietatik pitxarra bete, eta zuoi, irakurle eta laguntzaileoi, ur freskoa eskaintzeko.

2017 on denoi.



Behelano artean egin zuten korrika aiarrek. KARKARA

Nola ikusten duzu irisgarritasuna Goiko Kalen?



“Zergatik ixten duten plazako igogailua gauez?”

Oso gaizki. Gauetan plazako igogailua itxi egiten dute eta beste askotan hondatuta egoten da. Nola igogure etxera?

Ni oinez joan naiteke baina, haurrak, pertsona helduak edo gurpildun aukian doazenak oso zaila dute. Ez dut ulertzen zergatik ixten duten plazako igogailua gauez. Aurrekoan bezala, 21:00etatik aurrera anbulantzia bat etorri eta igogailua itxita.

Bandalismoa da igogailua erretzea, badakit, baina herritarrenganako bandalismo burokratiko ere badago. Jendearentzat ez da nahikoa, baina inork ez du ezer esaten. Isiltasuna ez da askatasuna.

Guillermo Padilla



“Bustita, labaina egoten da galtzada erromatarra”

Lehengo aldean oso ondo daukagu orain. Jendea gustura dago. Igogailuak asko erraztu ditu gauzak Goiko Kalen.

Lurrarekin kontuz ibili behar izaten dugu; galtzada erromatarra oso irristakorra izaten da eta euria egiten duen bakoitzean tentuz ibili behar izaten dugu. Are gehiago izotzarekin, azkenaldian bezala. Gainera, Kale Nagusiko aldapan ez dago batere heldulekurik; labain dagoenean laguntzarik ez dago.

Hala ere, azkenaldiko hotzekin gatza ari dira botatzen udal teknikariak eta eragina nabaritu da. Kultur etxeko igogailuaren inguruan behar izaten da batere ere.

Patxi Oliden



“Izugarrizko mesedea izan zen igogailuak jartzea”

Izugarrizko mesedea izan zen igogailuak jartzea, bai plazakoa eta baita Kultur Etxe atzekoa ere. Izan ere, Goiko Kalen bizi ziren batzuek etxetik ezin izaten zuten atera. Igogailuak erraztasuna ematen du mugitzeko behintzat.

Antxiola kalean ere egin dituzte lanak, lehen eskilarak zeuden eta orain aldapatxoak egin dituzte. Hori jende helduarentzat mesedegarria da.

Asteburuetan autoentzako ixteak kalte eta mesede egiten dit. Kotxez etortzen dira asko eta asteburuetan ixten denean ezin izaten dute etorri. Bestalde, berriz, herriko jendeak erraztasunez egiten du Goiko Kaletik buelta.

Joxe Ramon Iparragirre

Herri baten bizimodua errezeta liburutan jasotzen da. Lagunarteko otorduak; etxe-ko jan ohiturak; baratza, ibaia eta itsasoa; jatetxeetako sukaldeak... ikasteko lekuak dira denak. Mahaiaren bueltan gauza asko egin daitezke. Interesgarrienak bi: jan eta berriketan egin. Goazen Orioko errezeta liburua idaztera.

“Inguruko sagarrarekin lan egitea da bidea, berreskuratu ditzagun sagastiak”

Nerea Artola Pascual
Marmitakoa



Osagaiak

Hegaluzea
Tipula
Piperra
Baratxuria
Piper txorizeroa
Tomate heldua
Patatak
Arrain salda
Zopakoa
Olioa
Gatza
Piper miña, aukeran

Edaria

Satxota sagardoa

Nola egin

Piper txorizeroa sukaldatu eta haragia edo mamia kendu. Ontzi batean olio jarri suabe-suabe. Tipula, baratxuria eta piperra gorritu. Kolorea hartzen duenean piper txorizeroaren mamia eta tomate gehitu. Ondo beratu. Arrain salda eta patata bota. Zopakoa gehitu patata eginda dagoenean. Ondo mugitu eta gatza probatu. Azken momentuan sutatik kendu. Hegaluzea gehitu, ontziaren berotan berehala egingo da.

JON AGIRRESAROBÉ

Ilusioz eta urduri harrapatu dugu Nerea sagardo denboraldia hasita. Sagardo berria probatu dugu, edaria nola baloratu erakutsi digu eta sagardoarekin primeran datorren errezeta proposatu digu: marmitakoa. Etxe askotan izango dugu hegaluze zatiren bat izozkailuan gordeta.

Hogei urte pasa dira, jada, Zizurkildik Aiako Santio Errekara etorri zinetenetik.

Argazkiko baserria da Saratxota, Zizurkil Goiko azkena, Aiako lurretan dago ia. Hitz egitean ohikoak dira laburdurak gure inguruan eta Saratxotak silaba bat galdu du urteen joanean. Baserriak tolarea zeukan eta birraitonak sagardoa egiten zuen. Bestalde, 1980an gure aitak eta amak jatetxea zabaldu zuten Zizurkilen. Jatetxean lan egiteaz gain aitak sagardoa egiteko ilusioa zuen. Ondoko lokala erosi eta sagardotegia jarri zuten gurasoek, Satxota izena du ireki zenetik. Ez genuen tolarerik, beste sagardotegi batean sagarra jota ekartzen genuen irakin aldia etxean egitera. 1996. urtean Santio auzoko lokala hartu genuen. Bai, hogei urte pasa dira.

Zer moduzko sagardoa atera da aurtentzen?

Etxeko gazteak aritu gara lanean. Erronka izan da, polita baina ardura handikoa. Kostaldean sagarra ondo izan dugu, Astigarraga aldean gutxiago. Bi zonaldeek kontrako joera izaten duten urtez urte. Zenbaitetan presa izaten dugu sagarra jotzeko, baina, sagarrak heltzeko denbora behar du. Aurtentzen udan euri gutxi egin du eta sagarrak ura eta gizentzea behar zuen. Irakinaldiak, aldiz, azkar egin ditu, ia hamar egunetan egin ditu biak. Sagardoari etortzea edo egitea gehiago kosta zaio, baina emaitza oso ona izan da. Gorputz eta e- struktura handikoa da aurtentzen sagardoa.

Etxeko indarra nabarmena da Satxotan. Eta etxeko sagarra?

Satxotan sagar kilo asko behar izaten ditugu sagardoa egiteko. Etxeko sagastiaz gain inguruko baserritarrei erosten diegu sagarra. Gehiena ingurukoa da, Gipuzkoakoa. Falta zaiguna Galiziatik ekarri dugu aurtentzen.

Gremioan badira nobedadeak. Euskal Sagardoa jatorri izendapena aurkeztu berri duzue.

Pausu garrantzitsua izan da sektorea bildu eta gure lanari



Goian, Nerea Satxotako sagardo berria dastatzen. Behean, Zizurkilgo Saratxota baserria.

“Plater berriak sartu genituen iaz: bakailao ketuaren tosta eta txangurroa”

“Jatorri izendapena pausu garrantzitsua da sektorea bildu eta gure lanari balorea emateko”

balorea emateko. Eusko Label sagardoa ekoizten urteak daramatzagu, etxeko sagarrarekin lan egitea da bidea. Horretarako, berreskuratu ditzagun sagastiak eta sagar barietateak. Garai batean gure mendietan sagarrondo askoz egoen, urteen poderioz beste zuhaitzak nagusitu dira. Gaur egun base-rritar gutxiago animatzen da sagarrondoak jartzera, lan handia du. Formula berriak pentsatzen ari gara, besteak beste, alokairu moduko bat: sagardogileak errenta baten truke jarriko ditu sagarrondoak.

Bisita gidatuak eskaintzen dituzue Satxotan, eskatu ahala. Egin dezagun entrenamendua. Zer kontatzen duzue?

Prozesu osoa azaltzen dugu. Sagarra jo behar da lehenbizi. Dekantatu eta sagardoa biziko den kupelera bideratzen dugu irakinaldiak hasteko. Tartean sagardo amak mugitu behar dira pixka bat, eta trasegua egin behar zaio oxigenatzeko. Gaur egun enologoak dauzkagu, jo aldietan eta irakin aldietan etxean egoten dira erabat. Bere gomendioen arabera hartzen ditugu erabakiak. Bi irakin aldiak hilabete barruan egiten ditu, ia beti: lehenean azukrea alkohola bihurtzen da, bigarreanean azido malikoa azido laktiko. Azken hilabetean ziria itxita eduki nahi izaten dugu, deskantsatzen uzten dugu. Horregatik abenduan itxita egoten dira sagardotegiak. Txotx denboraldia martxan dela martxoan hasiko gara botilaratzen.

Txotx denboraldian izango duzue buruko miñik?

Gustuko dut sagardotegiko giroa. Ohituta gaude, jatetxean jaioak gara eta ohituta gaude jendea festara gure etxera etortzera. Dena bere neurrian, gustuko dugu adar jotze munda. Bestalde, hori du etxeko negozioan aritzeak, beti zaude nola hobetu pentsatzen. Esaterako, hogeita hamar urte daramatzagu etxean otorduak eskaintzen eta plater berriak sartu genituen iaz: bakailao ketuaren tosta eta txangurroa. Esker oneko agertu da jendea. Enkarguz arkumea burduntzian eta txerrikumea labeen prestatzen ditugu, baita bakailaoa pil-pil eran edo tomaterekin edo arraiak parrilan, aldeztu aurretik eskatuz gero.

Entzun izan dizut Zizurkildik hona jan ohituretan aldaketa nabarmendu zenutela

Bitxia da, bai. Kilometro gutxira gaude Zizurkildik, baina aldaketa sumatzen da. Zizurkilen mendi aldekoak gara eta arkumea burduntzian edo mondejuak estimatzen dira asko. Zenbat mondeju saldu ote da azaroan eta abenduan. Nabari da, kostaldean, itsasoko produktuen aldekoak zaretela. Bestalde, sagardoaren kultura ere ezberdina da: denboraldia hasteko irrikaz egoten da jendea Zizurkil aldean. Hemen, otsailean pizten da denboraldia, beranduxeago, baina nabari da jendea gogo handiz etortzen dela, oso gustuko duzue sagardo mundua. Hala ere, bada denbora, Satxota ez dugu urte osoan ixten eta!



2GURPIL

Baxoalde 2 - 3 - 20810 Orío (Gipuzkoa)

Tf 943 835 980 www.2gurpil.com bigurpil@hotmail.com



IGLESIAS SARRILAGILEAK

Javier Iglesias Fernández
637 723 308
iglesiascarrilagileak@yahoo.es
ZOBIO ORIO

- ATEAK IRIKITZEN DITUGU
- SARRAILA - ZILINDRO ALDAKETAK
- ATEAK IXTEKO MALDURIKIN ALDAKETA
- KOMUNITATERENTZAKO ZERBITZUA

24 ORDUKO ZERBITZUA

Katu Horia
ΟΥΣΙΟΓΕΝΕΣ ΗΛΙΚΟ



www.katuhoria.com

ESTROPALARI, 10
20810 ORIO LARRIANDIAK
tel. 943 11 66 99 668 89 11 29

KAFETEGI - OKINDEGI - GOZOTEGIA **GELATTO**



lzozki naturalak... Opilak

943 578 176
Herriko enparantzen

obrak proiektuak errehabilitazioak txostenak eraikuntza zerbitzuak ITEak eraikinen mantenua

XS arkitektura

borja agiresarobe lopetegi
herriko-barra 6, behea
20800 zarautz

6 3 5 7 3 1 7 2 2
9 4 3 1 3 4 3 5 8
xs@xsarkitektura.com

URANGA
burdindegia

Opari, menaje eta erremintak

fer.uranga@euskalnet.net
Telefax: 943 8312 36 Eusko Gudari, 5

Carmen eta Txomin
ARRANDEGIAK



943 83 05 37 / 943 83 27 47

Garbine Arregi *Moda eta osagarriak*

Herriko plaza 5
635 716 265

pasapantxan goizez zabalki!

emakume arropa - neurri bereziak kinkiladenda - barruko arropa

argine

13.eko dekaldua familia aparten saiatelarekin

Eusko Gudari, 9 - Orío
943 134 889 argine/jantziak

Portu ERRETEGIA

Santo Erreka Auzoa, 26
943 89 4464
20809 AIA-ORIO

braskak, laventis, aliskar, jantziak erretak, erretak, erretak...

URAITZ
LARRINDEGIJA
jantzi osagarriak

Endara 3 - Tfax 943 83 18 97

ZINKU

Igeltseritza orokorra
Eusko espeziama mola guztiek
talduek, bainu gelak, igeltsera...

Ander Zinkunegui
667 740 279

Lizaso
dekorazioa



Tf: 943 83 07 84
Faxa: 943 24 87 15
Eusko Gudari, 48

Egun arraroak



Peru Iparragirre

**2016a amaitu da,
Donostiaren periferian
-Donostiako zentroa ez
dena periferia baita-
inoiz amaitu ezin
zitekeela zirudien arren**

Arraroak izan ohi dira urte amaierako eta urte hasierako egunak, San Tomas aldean hasi eta urtarrileko manifestazioarekin batera amaitzen diren horiek. 2016a amaitu da, Donostiaren periferian -Donostiako zentroa ez dena periferia baita- inoiz amaitu ezin zitekeela zirudien arren. Joan den urtearen aztarnak kaleetatik ezabatzen doaz, halabeharrez, baina mantsoegi.

Egun hauetan egin ohi dugu urtearen errepaso, urteko liburuak, urteko filmak, urteko urteko gauzen zerrenden zerrenda... Zerrenda egunak dira, egun arraroak. 2016.a benetan bukatu dela ziurtatu nahiko bagenu bezala. Atzera begira jartzen gara, begi ertza etorkizunean paratuta, esku bateko hatzekin zenbatzen ditugu hautsitako promesak -geure buruari eginak- eta beste eskuko hatzekin agintzen promesa berriak, beharrezko errituala.

Etor bedi datorren urtea eta ekar beza zerbait berria. Horixe errepikatzen diogu geure buruari, tabula rasa, aurtengoan bai, aurtengoan ziur. 2017ko urtarrilaren lehen egunetan balea agertu da Getarian, ez dauka arratoi itxurarik eta ez da Zarautzik ikusten. Baina erraturik darraigu orrialdeen gainaldean 2016/... idazten. Egun arraroak.

Urte pilaketa bat da denbora. Edo horrela sinestarazten digute egun hauek, urteen pilaketa da denbora eta urteak noiz pilatuko zain egotea bizitza. Egutegi zaharra sutara bota. Ezabatutako, borobildutako edo seinalatutako egunek berdin berdin hartzen dute sua, oroituko ote ditugu. Bankutik pasa eta egutegi garbi-zuria jaso, edo Sehaskaren egutegiko izenak osteran horman zintzilikatu. Urtea pilatutako egunak dira.

Egun arraroak dira hauek. Tebistan euria eta elurra, kalean hotza eta negua haizea bietan, tarteka. Egun hauek igarota behar bada konturatuko gara urtea ez dela egiaz amaitzen, eta ezin dela, beraz, berriro hasi. Konturatuko gara ez duela deusetarako balio zain egoteak -berdin amaieraren edo hasieraren-.



Iñigo Exposito

Bi haurtzaro dituen bizitza

Ua! Ua! Ua! Egin dituzten negarrak haurrak. Jaio da, bai. Zein ederra den, zein polita. Begiak dir-dir egiten digute.

Ilusioz gainezka gaude. Hasi da haurraren aro berria, berriro itzultzen ez omen den garaia, beste behin biziko ez dituen momentuak. Gogoan izaten ez diren uneak.

Urteak joan urteak etorri, heteromonoa zen haurra autonomo bilakatu da. Ene, zenbat hazi den gure haurra! Iritsi da heldutasun aroa, momentu arte eusten ziguten sokak eten dira, erabakiak hartzeko garaia iritsi da. Gu geure geure buruaren jabe. Begiek ikusten dutenaz harago dagoenaz konturatu hasten gara.

Hara! Ia gurasoak baino hobeto zaindu didaten horiei zerbait gertatzen zaiela dirudi. Gauzak ahazten zaizkie, oinez ibiltzerakoan arazoak dituzte, euren bila joatea atsegin dute. Autonomo izatetik berriz ere heteronomo izatera igaro dira. Orain berek behar gaituzte guztiei.

Ezin diegu bizkarrik eman, beren bizitzen bigarren haurtzaroan barneratu dira. Inoiz baino gehiago guztion indarrak batzea beharrezkoa da. Ez da inolaz ere lehen haurtzaroa bezain samurra; ez, gogorra da, baina erabakiak hartzea beharrezkoa da; guztion onurarako erabakiak. Erabaki gogorrak, inoiz ulertzera iritsiko ez direnak. Egoera zail horiei adarretatik heltzen diotenak bilakatzen dira ausart. Ihes egiteak du balio.

Xapa zapataria

oniar beste aukera bat zure zapata eta oragarrice

Herriko plaza. Orio

Maidor Arrillaga Sarasola · 138. Kol. zenb. Arrantzaile 63 · 20810 · Orio · Gipuzkoa
Tel. 943 575 361

oinarri
PODOLOGIA ZENTROA

Alustiza Autobusak
Alustiza Bidaiak S.L.

Autobus litera eta 16, 19, 25 eta 56 plazakoak. Bidalatu eta ezkontzetara edo sagardotegira joateko.

Tel. 943 13 28 93 / 83 08 80. Mugikorra: 656 78 30 01 / 656 78 29 99

KOLON TXIKI
sitarisagin
juseak

Herriko Eparantza, 4 ORIO
Tel. 943 83 00 44

EKILORE GARBIKETAK

626417841
ekilore@outlook.es

mauka

PAPERDENDA LIBURUAK ETA OPARIAK

TEL/F - 943 572 083
FAX - 943 571 190
l.asenjo@hotmail.es

INES ASENJO ABESLARI, 1
20810 ORIO

azkue  **karrozeria**

Ubegun industrialdea, 7
20809 Aia-Orio
Tf/fax: 943 83 51 86
carroceriasazkue@hotmail.com

azkue

Tf: 943 130 438

azkue

libe
dietetika
elikadura anolikularitza

eusko gudañak 35 · ORIO
[sarria Arrantzaile kaleak]

943 53 64 94 · 697 23 86 56
libegarmondial@gmail.com

PERTSIANAK

AKO  **MAZ**

Aluminio, PVC
Venezianak
Motorrak...

Tel. 943 13 29 01 Mugikorra 600 70 52 27

LUXARBE
igeltseritza

Igeltseritza orokorra, denetarik egiten dugu.

Presupuestoak eskatu konpromisorik gabe

Lan txukuna eta merkea

Tf/fax: 943 83 59 00



Herriko plazan urte mordoa daramatza azokak. Estalkia helburu horretarako jarri zen. ARTXIBOA

Asteroko azoka, Orioko historiaren parte: zer zen eta zer da?

Urte mordoska da era bateko edo besteko azokak egiten direla Orion. Denboran atzera eginda, **jatorria izan daitekeenetik gaur egungo** merkatura arteko bidea egin dugu. Irakurri, irakurri! Merke merke!



TESTUA: L.BERASALUZE

ARGAZKIAK: KARKARA ETA J.M.OLASAGASTI

Asteroko azokaren jatorria ziurtasunez berrestea zaila da Orion, erretako udalarekin galdu baitziren dokumentu asko. Herriko ekoizpena herritarren oinarri zen garaietan sortu zireneko ustea nahikoa zabaldua dago; nekazaritza alorrean, etxeko beharrak asetuta, baserritarrek beren uztak eta abereak herrigunera jaisten omen zituzten saltzeko; hori zuten beren ekoizpenen merkaturatze-bidea.

Arrantzari eta ontzigintzari lotutako herria dugu Orio, baina nekazaritzak ere izan zuen bere garrantzia. Marta Trutxuelok *Orio historian zehar* lanean jaso zuenaren arabera, XVI. eta XVII. mendeetako eskasiak itsaosarekin zerikusia zuten jardueretan eragin zuen bereziki, eta nekazaritzari ekin zioten oriotarrek beste irtenbide baten bila. XVII. mendearen 20ko hamarkadatik aurrera, hortaz, nekazaritzari es-

ker hasi zen berpizten Orioko ekonomia eta XVIII. mende bukaera arte oriotarren ekonomi-iturri garrantzitsuenetarikoa izan zen. Esate baterako, 642 biztanle zituen Oriok 1787an eta horietatik 548 ziren nekazariak –*Floridablancaren Zentsuan* jaso–. Arrantzaren eta ontzigintzaren susperraldia eta gatazka politikoak tarteko, gainbehera egin zuen pixkanaka. Bizirauteko beste bide batzuk hartu zituen nekazaritzak –lanberritzearekin jarraituz, Kontzejuarenak ziren errentako lurrak, errotak, etxaldeak eta lur-sail propioak salduz... – eta jardunari eustea lortu zuen etxerako adina aterez, horretarako egokiena baserri-bizimodua zelarik.

Azokak herrian

1852. urtekoa da Orioko Udal Artxiiboetan asteroko azokari buruz dagoen agiririk zaharrena. C-100.2 dokumentuaren arabera, 1852ko uztailaren 9an eman zuen Tolosako Batzar Nagusiak Orion abere-azoka egiteko baimena. Hileko azken larunbatetan inguruko baserritarren ganaduak Orion ego-



“1852ko uztailaren 9an eman zuen Tolosako Batzar Nagusiak Orion abere-azoka egiteko baimena”

“Artisautza eta jaki postuak zituena hasierako azokak. Gaur egun, arropak presentzia nabarmena du”

ten ziren hortaz, salgai. Urte batzuen poderioz, ganadu azokarentzako bereziki altxatako plaza egitea erabaki zuen Orioko Udalak. 1883ko udal aktan jasoa dago nola udalak baldintza pleguak kaleratu zituen errio inguruan zegoen *Ondarduguia* eremuan helburu horretarako plaza egiteko.

Ganadu-merkatuari buruz ezer gutxi dakigu. 1949ko udal akta batean ganadu azoka larunbatetan egiten jarraitzen dela aipatzen da, eta goizean egitetik, goiz eta arratsaldean ospatzera pasatzen dira.

Bestalde, Gipuzkoako Gobernadore Zibilak 1917ko otsailaren 18an sinatutako agirian eman zion astean behin, larunbatetan, merkata egiteko baimena Orioko alkateari. Udalak *Casa de los Arcos* delakoa egokitu zuen horretarako, mahaiak eta aulkian jarri eta paretak zurituta. Eta martxoaren 3an inauguratu zuten.

Hiru urte eta gero, eta ondorengo urteetan, plaza estaltzeko eskaerak, behin eta berriz ageri dira Udal aktetan. Ez dakigu zer pasa zen ordura arteko asteko azokarekin, baina merkata Herriko Plazara eramateko saiakerak ageri dira. Hainbat eztabaidaren ondoren, Portuko Zuzendaritzaren arautegia dela-eta, 1925eko abuztuaren 20an, ostegunarekin, inauguratu zuten merkatu berria, Esteban Orbegozo arkitektoak diseinatutako estalkiarekin.

Tasei dagokionez, postua jartzeagatik (1,5 pezeta), eserleku bakoitzeko, otar edo paketeko, oilo, oilasko edo ahate pareko, antxume edo arkumeko, larru pieza bakoitzeko eta ehi-zako piezako (0,05 pezeta) ordaindu behar izaten zuten azokako saltzaileek 1927an. Plaza erabiltzen uzteagatik eta azokako saltzaileei emandako zerbitzuengatik Udalak azokatik jasotzen zuen diru-sarrerara eskasa argudiatuta, tarifak bikoiztu egin zituzten 1949an.

Martxa ona hartua izango zuen azokak urteen poderioz, 1952ko uztailaren merkata astean bitan egitea adostu baitzuten udal ordezkariak. Herriarentzako eta herritarrentzako onuragarria izango zela azpimarratu zuten. Ostegunetan egiteari laga zitzaion, asteazken eta larunbatetan egiteko.

Jakietatik arropara

Artisautza eta jaki postuak biltzen zituen hasierako azokak. Jendartearen ohiturekin batera, postuak ere aldatuz joan dira eta gaur egun, arropak presentzia nabarmena du ostegunetako azokan. Kultura eta Merkataritza teknikariaren esanetan, postuen aniztasuna zaintzeko konpromisoa badago, baina sortzen diren hutsuneak betetzeko garaian, arropasaltzaileak bakarrik daude merkaturako zuloak betetzeko prest. Horixe pasa da gazta-saltzailearekin ere. Bi belaunaldi oso eman ditu Zabala gaztak gurean, eta iaz agurtu gintuen. Ez da beste gazta-saltzailerik etorri.

Merkaturatzeko bidez gain, azokek bizia ematen diote herriari, tokian tokiko ondare soziala eta kulturala osatu izan baitute urtez urte –Begiristain, Malagon eta Oñederra, 2016–. Baina, jendearen kontsumitzeko modu berrien eraginez, azokako eta herriko merkatarien arteko tira-birak sortu eta Orioko salmenta ibiltaria erregulatzen duen ordenantza argitaratu zuen Udalak 2015eko ekainean.

Azoka, estu eta larri



“Nire bigarren etxea da Orio”

Jendearekin egiten dugun harremanak ez du preziorik. Lagun asko ditut hemen. Gainera, Elena Orion, Azkue kontserbak-en, aritzen lanean 14 urte zituela, 7-8 urtez.

Elena eta Pako (arropa-saltzaileak)

Donostiakoak
39 urte Orioko azokan



“Herriarentzat ere onuragarria da”

Guretzat bakarrik ez, herriarentzako ere onuragarria da azoka. Jendea erakartzen du eta herriko beste esparrutan eragiten. Bezero talde fidelari esker eusten diogu.

Ana eta Carlos (arropa-saltzailea)

Irungoak
26 urte Orioko azokan



Lucidio (gizonezkoen arropa-saltzaile)

Legorreta
46 urte Orioko azokan



Mohamed (oheko arropa-saltzailea)

Zumaia
15 urte Orioko azokan



“Gastuek jan egiten gaituzte”

Tasa oso altuak dauzkagu hemen. Gastuek jan egiten gaituzte. Garai batean etorri ahala ordaintzen genuen, baina badira urteak hiruhileko osoa pagatzen duguna, etorri ala ez. Ez dago deskantsatzeko, oporretarako, tarterik hortaz. Ordainduta baldin badago, nola geratuko gara bada etxean!

Elena eta Luis Anjel (fruta-saltzaileak)

Zumarragoak,
36 urte Orioko azokan



“Ohituragatik etortzen naiz”

Milagroa da guk hemen ostegunero jarraitzea. Oso gogorra da eta ezin da azokatik bakarrik bizi. Andoainen dudan dendagatik eta gizonaren pentsioagatik izan ez balitz... Ohituragatik etortzen naizela uste dut. Ez dut sekula merkaturik aldatu, hasieratik plaza berdinetan nabil. Azoka txikietan ibiltzen naiz.

Asun (umeen arropa-saltzailea)

Andoain
36 urte daramatza Orioko azokan saltzen



Maria eta Pedro (artisauek)

Ekuadorkoak. 3 urte daramatzate Orion. bizitzen.
5 urte Orioko azokan



Joan Jose (oinetako-saltzailea)

Legazpikoa
28 urte Orioko azokan



Miriam (urdaitegiko saltzailea)

Zumarragakoa
Urte eta erdi Orioko azokan



“Eskerrak eman behar oriotarrei”

Gauza asko baztertu behar izan ditut honetatik bizi ahal izateko. Familia negozioa da; sakrifizioa eskatzen du. Halere, oso gustura nago eta oriotarrei eskertu behar diet.

Mari Karmen (arropa-saltzailea)

Anoetakoa
50 urte gure azokan (aitak laga zion postua)



“Aparkalekua erraztuko balitz...”

Aparkatzeko erraztasun gehiago eman behar zaio jendeari. Asko jaitsi da salmenta eta erostera etorri nahi duenari bidea erraztu egin behar zaio.

Miguel (arropa-saltzailea)

Oriokoa
31 urte Orioko azokan



Luzmila (Komertziantea)

Ekudorkoa, 2001z geroztik Orion bizi da
2 urte Orioko azokan



Iñaki (bakailero-saltzailea)

Lezokoa
38 urte Orioko azokan. Hamabostean behin etortzen da.



“Aisialdian gasta-tzen du jendeak”

Dirua gastatzerakoan, lehentasunak aldatu egin dira. Jendeak nahiago du aisialdiari eskaini eta beste nonbaitetik kendu. Horrez gain, herrian, edadetuak, ama izan berri direnak eta dirurik ez duten gazteak geratzen dira azoka garaian. Nork erosiko digu! Bokazioa daukat eta etorri egiten naiz halare.

Chelo eta Moises (arropa-saltzaileak)

Usurbilgoak
40 urte Orioko azokan.



“Ez dago azoka indartzeko gogorik”

Ezozik etortzen naiz azokara, postu polit polita jartzen dut eta kontentu. Bokazioa daukat eta etorri egiten naiz. Jatorra da hemengo bezeroa. Orain, azoka sustatu nahiko balitz, horretarako moduak aurkituko lituzkete. Eta eskatzen hasita, jubilatuek ez ditzatela mesedez azoka egunetan egin eskurtsioak!

Alberto (ardo-saltzailea)

Andoaingoa
40 bat urte Orioko azokan.



Mohamed (erloju eta opari-saltzailea)

Andoaingoa.
20 bat urte Orioko azokan



INDO
Garraio frigorifikoa
NAZIONALA ETA NAZIOARTEKOA

Ubegun industriagunea, 4
Tel. 943 894 024
Fax. 943 130 144
20809 AIA - ORIO



LEUNDA OKINDEGIA

ORDUTEGI ALDAKETA 943 89 00 67
 asteleroetik-larunbatera igande eta jai-egunetan
 7.00-13.30 / 17.00-20.30 7.00-13.30

JON ANDER MAIZA AROZTEGIA



LEIHO ISOLATZAILAK
PVC - ALUMINIOA

690 99 39 32 / 943 30 07 88

ventanasmaiza@gmail.com
 www.carpinteriamaiza.com
Antxiola kalea 19, 1º C 20810 ORIO

arkaitz taberna
 orio

- Ogitartekoak - Pintxoak
- Plater konbinatuak
- Karta

Terraza ederrarekin
 Giro ezin hobea

abeslari kalea 6 - 943 831 657

eduzitegia
ANTILLA
justolace

Abeslari kalea, 2 - Tel. 943 83 23 00

PIZZERIA

KALETA

ARRANTZALE KALEA, 10
TELEFONOA: 943 24 89 46

Seguros Bilbao

Tel: 943 111 600
 688 714 869

Santi Barranco
 Orioko ordezkaria

Endaia Enparantza, 1
 20810 Orío (Gipuzkoa) e-posta: sbarranco@segurosbilbao.com

ASADOR XIXARIO

Esteko Gasteiz Kalea, 2
 Tel. 943 030 019 - ORIO

SU KIA
 TABERNA - JATEGIA

On egin eta gero... hartu KOPA eta TOPA!!

- OILASKO ERREAK ERAMATEKO
- EGUNEKO MENJIA
- EGUNKARIAK
- OGIA

Tel. 943 942 128
 ARRANTZALE 16, 1 BARRIO

Sagasti LEIHOAK

ROBERTO SAGASTI

Tel. 943 13 00 77 - Fax. 943 53 71 50
 sagasti@sagastileihoak.com
 Arrantzale kalea, 65
 20810 ORIO (Gipuzkoa)

OREKA FISIOTERAPIA

Tendinitisak
 Lumbalgia
 Artrosia
 Zefaleak

Masaje terapeutikoa,
 bentonak, akupuntura,
 eskuzko terapia,
 osteopatia

943 13 35 37
 Arrantzale kalea, 11 beheko

Joana Murgiondo
 Aseguru-agenlea

ASEGURUAK

CCCI
 CARERA, CIVIETI, LACORT Y CIA, S.A.

Abeslari, 4- 2. esk.
 Tfnoa: 943 13 46 07

Jolas



Garbiñe Manterola

Neguaeren egun hotzenetan izanagatik ere, goxo gogoratzen dut beltzetik izena besterik ez duena, (H)ilbeltza.

Nirugarren urtean lortu du gure lagunak seiko koadrila konbentzitzea, eta baita ondo konbentzitu ere. Urteroko zita bihurtzeko bidean egin baitugu etxerako buelta.

Neguaeren egun hotzenetan izanagatik ere, goxo gogoratzen dut beltzetik izena besterik ez duena, (H)ilbeltza. Baztango sutondoetan bildu gintuen Euskal Nobela beltzaren asteak, bai gu eta baita txoko guztietako euskaldunak ere. Ez genekien zer topatuko genuen, zer egingo. Erantzun uste baino ederragoak izan dituzte joan aurreko galderek: literaturaren aitzakian jende zoragarria ezagutu dugu eta gogotik egin dugu barre. Azken horiek osatu dute asteburuko dieta. Beno, horiek biek eta plater beroek. Bada gero kalabazarik leku sorgindu haietan.

Baina nator kontatu nahi dudanera. Momentu goreneta-koa susmagarrien gauak osatu zuen. Erratzun ibili ginen tabernaz taberna antolatzaileek proposatutako jokoa. Nork nor hilko, nor bizirik aterako. Denok hiltzaile eta biktima po-

sible bihurtu gintuzten. Eta izan zen odol zipriztinik, biktima egoskorrik eta supituko hildakorik. Talde konspirazioak dezente, konbentzimendu askoko hiltzaileak, inor hiltzeko gogorik ez zutenak ere bai. Eta azaldu zen tartean odola ikaragarri gustatu eta 5 pertsona akabatzerainoko abilezia izan zuenik ere, gure irabazlea.

Baina denok izan ginen irabazle, irribarre gozo batekin bukatu genuen arratsaldea. Jokoa jolas bihurtu baikenuen. Udalekuetako usaina aditu eta umezarora teletransportatu ginen. Eta era digital honetan facebook, twitter eta halakoak alde batera utzi eta paparrean jarritako koloretako kartulina zatiek sortu zuten sarea eta, batez ere, saltsa.

Zergatik ahazten ote zaigu hain terapeutiko dena, jolas-tea? Baztanera joan behar izan dut besteek proposatu eta jolasean hasteko. Ez nadin sekula ahaztu eta Orion bertan ere, lotsak alde batera utzi eta nabil jostari. Kasu nirekin kalean topatzean! Zuotako edonor izan daiteke nire hurrengo biktima.





Sukaldari txikien danbor soinuek lagatako irudi goxoak

Suziri soinuetatik danbor hotsetara pasa gara urtarrilean. Emozioz eta indarrez aritu dira Zaragueta Herri Eskolako eta Orioko Herri Ikastolako haurrak atabalak astinduz San Sebastian egunean. Zuzendarien aginduetara, fin aritu dira elegante asko jantzita.





“Bakarkakoa da judoa, baina beste baten laguntza ezinbestekoa da”

Eneko Eizagirre eta Gorka Aristondo

Judokak

Hamasei urterekin, Karela kiroldegiko harrobiak emandako judoken artean gerriko beltza lortu duen aurrenekoa izan da Eneko Eizagirre. Bere entrenatzaile Gorka Aristondorekin batera egin diogu elkarrizketa.

L.BERASALUZE

Aurreko urtea bukatu aurretik, azaroan, jantzi zuen estreinakoz gerriko beltza Eneko Eizagirre oriotarrak.

Nola joan da gerriko beltza lortu arteko prozesua?

E. Eizagirre: Judoan 6-7 urterekin, txikitan, hasi nintzen. DBH 1ean nengoela Lasartera joaten hasi nintzen judo egitera, Orion ez zegoelako nire adinerako talderik. Ez nuen denerako tarterik izaten eta utzi egin nuen.

Iaz, ordea, futboleko entrenamenduz gain kirol gehiago egin nahi nuen; hura gutxi iruditzen zitzaidan. Kiroldegian nire kabuz hastea pentsatu nuen, baina banekien ez nuela nire buruarekin sarri joateko konpromisoa hartuko eta judon hastea erabaki nuen. Aitzakia horrekin heldu nion berriz. Pixkanaka gero eta gehiago inplikatzeko joan naiz. Dena den, ia hasieratik nuen gerriko beltza lortzeko asmoa.

G. Aristondo: Gerriko beltza ateratzeko *kata* deitzen dena ikasi behar da. Lehen tatamian ikasten zen, baina orain federakuntzak ikastaroak antolatzen ditu. Gerrikoa atera nahi duenarentzat errazagoa da, espezifikoki hortara joaten delako. Eta guk ez dugu denbora bilatu behar hori lantzeko, zeren orduak eskaini behar izaten zaizkio.

Noiz erabaki zenuen, beltzaren bila joatea?

Bigarren kirol moduan hasi nintzen eta aurreko urteko Aste Santuen bueltan erabaki nuen serio hastea.

A: Gerriko beltza lortzea helburu genuen. Hasieratik zirikatzen nuen nik. Serio entrenatzen ari dela ikusten dudana azterketara joatera animatzen dut. Enekok dena serio eta arduraz hartzen du. Horrez gain, adina ere bazuen. Izan ere, gutxienez 15 urte behar dira gerriko beltza lortu ahal izateko.

Denbora gehiago behar izaten da, hortaz, normalean?

A: Bai. Lasarten gerriko beltza prestatzen ari zen taldetxo bat geneukan, 8 lagunez osatutakoa. Azterketa hori egitera 2 bakarrik joan ziren; bat Eneko. Horrek esan nahi du besteak bidean geratu direla, badoaz aurrera, baina pixkanaka. Hurrengo azterketara joango dira, ekainean.

Enekoz oso harro nago, gerriko beltza lortu duen eta Karelatik atera den lehenengo judoka izan da.

Prestatzera beste herri batera joan behar izateak ez du judoken bidea errazten.

A: ez dugu lortu oraindik erabateko jarraitasunik. Ikaragarritzko judokak eta taldeak eduki ditugu, oso kirolari onak. Alebin arte iristen dira eta ondoren arraunera, futbolera... joaten dira. Eskubaloiara joan zen aparteko belaunaldia ere izan genuen. Konpetentzia handia dago.

Judoari hel diezaioten saiatu eta saiatu ari gara. Noizbait taldetxo bat lortzen badugu aurrera egingo dugu. Ez dela ateratzen? Nik beti esaten dut daukadan jendearekin egiten dudala lana. Beste herrietara joateko aukera ematen dugu. Enekok jarraitu egin du eta momentuz hor dago goi-goian.

Ikastaroak non egiten dira?

E: Tolosan egiten dira, asteburuetan. 6 ikastaro egin ditut nik. Bakoitza 4 ordukoa da.

G: Ikaragarritzko esfortzu pertsonala egin du Enekok. Esfortzu ekonomikoa ere aipatzekoa da. Azterketa, ikastaroak, pegatinak, lizentziak, bidaiak... Meritu handia dauka.

Era berean ikasketetan ere oso ondo dabil. Oso ondo antolatzen da.



Bost dan ditu gerriko beltzak; aurrenekoa lortu du Eizagirrek -ezkerrean- eta bost ditu Gorkak -eskuinean-. KARKARA

“Antolaketa onik gabe ezin da aurrera egin; behar-beharrezkoa da”

E: antolaketa beharrezkoa da. Astean 3 entrenamendu saio egiten ditut Lasarten eta beste 2-3 fisiko Orion. Ikasketak, etxeko lanak, ingeles akademia, azterketak... antolaketa onik gabe ezin da aurrera egin.

Nolakoa da gerriko beltza lortzeko azterketa?

E: Epaimahai bat jartzen dute eta horien aurrean aritu behar duzu. Teoriari eta teknikei buruz galdetzen dute eta horiei erantzun behar izaten zaie.

A: programaketa bat izaten dute judokek. Hiru azterketa eredu egoten dira eta bat aukeratu behar izaten da. Teknika batzuk egin behar izaten dira gero: lurrekoak, zutikakoak eta *Tokui Waza* –gehien gustatzen zaizun teknika–, norberak bere teknikak nahieran konbinatuz. Bukatzeko *Nage No Kata* –konpetizio kata– eta ariketa batzuk egin behar dira.

Bakarkakoa da judoa, baina beste bat behar da zuk aurrera egiteko... horrexegatik egiten dugu agurra hasi baino lehen. Edozein ariketa egiterakoan eskerrak ematen zaizkio kidea-ri norberari hobetzen laguntzeagatik eta alderantziz.

E: bikoteak aurrez aukeratzen dira, hitz eginda eta agendak bateratzea zaila izaten da.

Txapelketetan ere indartsu zabilta.

E: Espainiako bigarrena naiz momentuan nire mailan; hor-txe gabilta aurrenekoa eta ni. Europako Koparako sailka-tzeko aukera izan dut eta gutxigatik geratu naiz kanpoan.

Beste batzuen erreferente izan zaitezke Eneko.

A: hori da ideia, baina zaila daukagu. Gutxi dira judoarekin jarraitzen dutenak eta zintzilik geratzen dira azkenean. Tal-detxo bat lortuko bagenu... Bitartean, Eneko eta biok hu-rrengo danaren bila joango gara tokatzen denean.



Berezko ekosistema bat aktibatu eta martxan jarri du txapelketak

Aiako eta Orioko taldeek hartuko dute parte **Gipuzkoako herriarteko bertso txapelketan. Bertso mugimenduari bultzada** eman nahi dio formatu berri honek. Txapelketaz eta bi herrietako mugimenduaz aritu gara parte-hartzaileekin.

TESTUA: M. GARCIA ETXEBERRIA

ARGAZKIAK: KARKARA ETA ERRIKOTXIA

Berritasuna dakar aurten Gipuzkoako Bertsolari txapelketak. Hamabigarrenez jokatu da aurten, baina ez da, ohi bezala, banakakoa izango, herriartekoa baizik. Taldeka lehiatuko dute herriek beren artean eta txapelduna ez da bertsolari bat izango, herri bateko bertsolari talde bat izango da.

Guztira 38 taldek eman dute izena txapelketan eta Aiatik eta Oriotik talde bana aurkeztu da. Ekaitz Arruti, Aritz Hernandez, Iñaki Gurrutxaga eta Jokin Zumeta izango dira Aia-ko taldeko bertsolariak; Aitor Arregi *Ximel*, gai-jartzailea; Eneko Balerdi taldeko arduraduna eta Aritz Arruti epailea. Orioko taldean Xabier Sukia, Rosi Lazkano, Imanol Lizarazu eta Egoitz Eizagirre arituko dira bertsotan. Horiez gain, Iñigo Exposito izango da komunikazio arduraduna, Jon Agirresarobe gai-jartzailea eta Alazne Arillaga epailea.

Formatu berria, filosofia berria

Herrietako bertso mugimendua ikustaraztea eta mugimendu horri bultzada ematea da txapelketa herriartekoa izatearen helburu nagusia. Horregatik, parte-hartzaile guztiek izango dute garrantzia txapelketan; bertsolariak ez ezik, antolatzaile, gai-jartzaile, epaile, komunikatzaile eta entzuleak ere protagonista izango dira.

Neurri handi batean, helduen bertso eskolei bultzada ematea du helburu txapelketa mota honek, hor dabilenari toki egitea. *Bertsolariak plaza dauka* –dio Gurrutxagak–, *baina bertso eskolatan dabilzanak beti ez dira plazako bertsolariak*.

Formatu honek duen onena atzetik duen filosofia dela dio Sukiak. Horrelako txapelketa bat antolatzeko kuadrila handia behar da: soziedade duen norbait eta sukaldariak –afari eta bazkari asko egiten baitira–, bertsolariak, soinu teknikariak, argazkiak atera eta albisteak egingo dituen kazetariak, gai-jartzaileak... *Figura asko behar ditugu eta horrek parte-hartzea bultzatzen du: jendearengana iristen zara eta makineria indartu egiten da*.

Biformatuen arteko desberdintasun nagusia hori da, antolakuntza mailan: banakako txapelketan egitura Bertsozale Elkarteak jartzen du eta herriartekoan bertso eskolek antolatzen dituzte saioak. Banakakoa, zentzu horretan, hotzagoa eta zurrunagoa da bertsolarien ustetan. Herriartekoak, berriz, malgutasun handiagoa eskaintzen du antolakuntzarako.

Talde bakoitzak bere herriko saioa antolatu behar du. Tokia, formatua, gaiak, megafonia, afaria... guztia antolatzea herri bakoitzeko bertso eskolaren ardura da. Beste taldeak dakien bakarra noiz eta nora joan behar duen da.

Bertsoak ere, ziurrenik, banakako txapelketan entzuten direnen desberdinak izango dira, afari eta bazkari asko egiten baitira herriartekoan. *Bertso afarietan beste umore bat sortzen da, txapelketetan ematen ez dena. BECen funtzionatu ez luketeen bertso batzuk hemen hobeto funtzionatu dezakete eta alderantziz.*



“Bertso afarietan beste umore bat sortzen da. BECen funtzionatu ez luketeen bertso batzuk hemen hobeto funtziona dezakete.”

“Txapelketa antolatzeko jende asko behar dugu eta horrek parte-hartzea bultzatzen du: jendearengana iristen zara eta makineria indartu egiten da.”

Lehen herriartekoa, 1999an

Txapelketa formatu honek badu aurrekari bat, 1999koa. Urte hartan izan zen lehen Gipuzkoako Herriarteko Txapelketa, mugarri bat jarri zuena.

Aiako eta Orioko taldeetan aurten parte-hartuko duten bertsolarietatik bi txapelketa hartan izan ziren: Iñaki Gurrutxaga eta Xabier Sukia. Ibai Esoain eta Eusebio Lasarterekin batera aritu ziren urte hartan, Orioko taldean.

Hemeretzi urte zituen Gurrutxagak orduan: *eskolartetik heldu berri nengoen orduan, gazte-gazte. Joaneko saioa Zumaiian izan zen eta jende mordoak joan zenaren oroitzapena daukat*. Itzulerako saioa Orion egin zuten, Jon Maia etorri zen Kultur Etxera eta areto nagusia goraino bete zen.

Aiako taldean Martin Rezabal *Olasok*, Nikolas Zendoiak eta Luis Otamendik kantatu zuten, Lasarteren kontra. Patxi Etxeberria oriotarra Lasartereko taldean zegoen txapelketa hartan. Kanua jatetxean egin zuten joaneko saioa.

Taldeakoa izaera medio, inoiz izan den parte-hartzerik jendetsuena izan zuen 99ko txapelketak. 24 talde aritu ziren eta, taldeak bertsolariek, gai-jartzaile banak eta epaile banak osatzen zuten. Guztira, 166 lagun bildu ziren taldeetan, horietatik 101, bertsolariek.

Lehen fasea

Otsailean hasiko da txapelketaren lehen fasea. Hiru taldeko multzoetan banatu dituzte parte-hartzaileak; hiru herri euren artean lehiatuko dira, beraz.

Aiako taldea zazpigarren multzoan dago, Lasarterekin eta Urretxurekin batera. Aiak etxean Urretxuren kontra lehiatu beharko du, eta kanpoan Lasarteren aurka. Otsailaren 3an joango dira aiarrak Lasartera. Oriotar batekin arituko dira bertsotan egun horretan, izan ere, Patxi Etxeberriak Lasartereko taldean kantatuko du. Otsailaren 24an urretxuarrak jasoko dituzte etxean. San Pedroko Uhartemuño sozidadean izango da eta bertso-afari formatuan egingo dute. Gurrutxagak, Zumetak eta Hernandezek kantatuko dute.

Orioko taldea Urola Erdiko Erriarraitzekin eta Hernanirekin dago bederatzigarren multzoan. Erriarraitzen kontra lehiatuko dute kanpoan eta Hernaniko taldea hartuko dute etxean. Otsailaren 3an joango dira Azkoitiara eta 17an egingo dute saioa Orion hernaniarrekin. Afari formatuan egingo dute saioa, Gure Etxea elkartean. Sukiak, Lazkanok eta Eizagirrek egingo dute bertsotan saio horretan.

Herrietako bertso mugimenduei bultzada

Bakarkako txapelketak bertsolarien promoziorako direla esan dezakegu -dio Gurrutxagak-, *baina herriartekoan hori ez da helburu bat*. Berez dagoen ekosistema bat aktibatu eta martxan jartzen dute horrelako txapelketek, eta dagoeneko ari da gertatzen. *Bi taldeok -Orioko eta Aiako- lehen fasea pasako bagenu elkarren kontra izango genuke saio bat* -dio Zumetak-, *baina ez bada hala gertatzen lehiaketatik kanpo beste saio bat antolatuko dugu*. Mugimendu hori elikatzen ari da dagoeneko.

Bertso mundurajende berria hurbiltzea, ahalik eta gehien, bertsolaria izan ala ez, hori da txapelketa honen premisatako



“Bakarkako txapelketak bertsolarien promoziorako direla esan dezakegu, baina herriartekoan hori ez da helburu.”

“Txapelketa formatu honek badu aurrekari bat, 1999koa. Urte hartan izan zen lehen Gipuzkoako Herriarteko Txapelketa.”



bat. Aritz Hernandez eta Ekaitz Arruti, adibidez, aurtan hasi dira bertsoan, Errikotxian. *Lagun artean aritzen ginen bertsoan* -dio Hernandezek- *baina inoiz ez ginen bertso eskolan ibili. Errikotxiak bertso txapelketa antolatu zuenean animatu ginen eta horrela hasi zen dena.*

Baina hurbildu diren bakarrak ez dira bertsolariak: epaile arituko da Alazne Arrillaga Orioko taldean. Bertsozalea da bera eta saio askotara joaten zela ikusirik, txapelketan epaile bezala parte-hartzeko gonbita egin zion Errikotxiak.

Lizarazuren ustetan, hori ekarpen bat izan daiteke Bertsozale Elkartearantz txapelketa nagusiari begira, izan ere, epaile izango direnek formakuntza jasotzeko aukera izan dute. *Epaimahai talde bat egiten baduzu, epaitzeko kualifikatzen badituzu eta txapelketa txikitzen jartzen badituzu, txapelketa nagusirako jendea prestatzen ari zara. Eta ez bakarrik epaileak, baita gai-jartzaileak, antolatzaileak eta beste jende asko ere.* Gaur egungo Gipuzkoako gai-jartzaile gehienak, adibidez, 1999ko herriartekotik ateratakoak direla dio Gurrutxagak.

Mugimendua pizteko balio beza txapelketa honek, hori da nahi dutena. *Azken urteetan ez da erreferente berririk sortu ez Orion ez Aian* -dio Sukiak-. *Orion, adibidez, Lasarte, Altuna, Etxeberria izan ditugu, ondoren gu sartu ginen, eta gure ondotik ez da inor etorri orain arte.*

Aian ere antzeko gertatu dela zio Zumetak. *Joxemari Lertxundi, Zatain eta Martin Olaso izan ditugu erreferente, eta horien ondotik 20 urteko hutsunea egon da, gu hasi arte.*

GIPUZKOAKO HERRIARTEKO TXAPELKETA. LEHEN FASEA:

A iako taldea zazpigarren multzoan dago eta Orioko bederatzigarrenean. Hiru talde dira multzo bakoitzean eta egitura triangularra izango dute saioek, hau da, bi saio egingo ditu herri bakoitzak.

Otsailaren 3an izango dute lehen saioa bi taldeek, Azkoitian Oriok eta Lasarten Aiak. Hilaren 17an eta 24ean izango dituzte saioak etxean.

Otsailak 17: Orio-Hernani

Lekua: Gure Etxea elkarte

Ordua: 21:00

Bertsolariak: Egoitz Eizagirre, Xabier Sukia, Rosi Lazkano Hernanitik zehaztu gabeko hiru.

Sarrerak: Afaria eta saioa 12€ Salgai Kolon Txikin

Otsailak 24: Aia-Urretxu

Lekua: Uhartemuño elkarte -San Pedro-

Ordua: 21:00

Bertsolariak: Iñaki Gurrutxaga, Jokin Zumeta eta Aritz Hernandez. Urretxuko bertsolariak zehaztu gabe.

Sarrerak: Afaria eta saioa 25€

Mugaminak



1974az geroztik muga batek zatitua dago Txipre. MUGAMINAK

Kritika Mugaminak

Dokumentala, Xuban Intsaustik egindako dokumentala Amets Arzallusek aurkeztu zuen urtarrilaren 12an, Kultur Etxean

Azken urteotan Mediterraneoetik heldu zaizkigun berriak, baina ezer gutxi nekien nik Zipreri buruz. Lehengoan Kultur Etxean proiektatutako Mugaminak dokumentalak, ordea, uharte horretako errealitatea ekarri du gurera: munduko beste herri askotan bezala, Zipren familiak eta norbanakoak dira gatazka politikoaren eta botere indarkeriaren biktimak.

Xuban Intxausti zuzendaria, Amets Arzallus bertsolaria eta gainontzeko lantaldea Pafos hirira joan ziren iazko udan, bertako poeta eta inprobisatzaileekin elkartu eta hango berri izatera. Errespetuz eta tentuz jakin dute biktimen mina eta egoeraren gordina azaleratzen. Eta ausardiaz aritu dira, aldi berean, Euskal Herriko gatazkari buruz. Bertsoa, poesia eta ikus-entzunezkoak uztartuta, zer hausnartua emango dion joan etorriko bidaia batean murgiltzen dute ikuslea.

Donostia 2016ko Europa Transit enbaxadaren baitan gauzatu da *Mugaminak*, 50 minutuko dokumentala. Ikusi nahi duenak *EITB Nahieran* atarian du aukera.

ARRATE ILLARO

Ille apaindegia
MARIJO
Neska eta mutilentzat
Eusko Gudari, 8 - behea
Tel. 943 13 47 29
ORIO

MENDIZABAL
ARROZTEGIA
Nerriko arnairak
eta egurak
943 831 175 Altsiri bidea
645 708 491 Beti-Aloi etxea
mend@arotzi.net 20810 Aia-Orio

K-U-K-U-A-B-B-I
ELEKTRIZTATEA
Tel: 943 100 181
Mobila 640 281 306
Zigoedia, 52 - bajo C
20000 Zarautz
kukuuarri@kukuuarri.com

kutixi
kafetegia
GOSARI GORDAK
Arizaga 8, 20810 Orio
Tel. 943 13 15 17

HAUR ETA HELPUENTZAKO JANTZIAK
ROSA
GARBIÑE ARRILLAGA
ARIZAGA KALEA, 2 - TEL. 943 13 19 41
10% DESKONTUA FAMILIA UGARIENTZAT

ttipi orain arropa ere bail
ttapa
943259695
ttipitapa.oihane@gmail.com
Eusko Gudarien, 15 - 20810 Orio

Izaskun Estankoa
Tabakoa
Prentsa
Eskola materiala
Opariak
Tel. 943 83 31 03

UTZIAR
kirolak
Tel. 943 83 31 03



Imanol Zinkunegi

Jarrera aldaketa helmugan

Donostian, agian hiria izateak ematen duen anonimotasunagatik, inori ez dio axola nola, zergatik edota ze denboratan egiten duzun korrika. Orion berriz...

gunak argitu du eta jaikitzeke garaia da. Leihotik begiratzean eguraldi ona dagoela ikusten da, agian zertxobait hotz, baina euririk ez. Heldu da eguna azkenean eta urtero moduan, beharrezko zerekin prestatzen hasten zara. Gosari arin baten ostean, harantz hartzen duzu norabidea, inolako presarik gabe. Bidean haize freskoa sentitzen duzu aurpegian, Gabonetako argi eta apaingarrirei erreparatuz. Hurbiltzen zaren heinean, zure modukoak topatzen dituzu leku berera doazela. Musika entzuten da eta jende kopurua handituz doa denbora pasa ahala. Ordua denean, arropaz aldatu eta abiapuntura zoaz guztien modura. Korrika egiteko asmoarekin zatoz, giharrak berotu dituzu eta hasteko seinalearen zain isiltasuna nagusitu da. Ez zaude urduri, korrika egiteko etorri zara, ondo pasatzera. Zer dela eta egon zintezke bada urduri?

Gehienok imajinatuko zenuten bezala, aurreko kontaktuzunean San Silbestreko lasterketaz ari nintzen, duela hilabete inguru ospatu zena urtero legez, abenduaren 31n, eguerdi partean. Nik neuk bertan parte hartu izan dut behin baino gehiagotan, eta hala egin nuen oraingoan ere. Nire bikoteki-deak ere badu korrikarako ohitura, berak Donostian egiten duen arren, eta gure herriko lasterketa ikusi ostean, bere jaioterrikoarekin konparaketarik ez egitea ezinezkoa iruditu zitzaion. Eta zein desberdintasun topatu zituela uste duzue? Aurrerago zehaztasun gehiagoz aipatuko ditudan arren, dena gauza batera mugatzen dira, giroa.

Donostian, 8 kilometro inguruko ibilbidean zehar, milaka parte-hartzaile dituzte urtero. Jende mordo biltzen da bertan, bai ikusten, bai animoak ematen eta baita korrika ere. Izena eman ostean kamiseta bana jaso eta lasterka doaz. Korrikalariak, edonon bezala, denetariakoak dira. Badira sekulako denbora egiten dutenak, eta hain ona egiten ez dutenak ere. Batzuk sekulako entrenamenduak egiten dituzte asteetan zehar beren markak hausteko edota lehen postuetan heltzeko; beste batzuk, aldiz, bai ongi pasatzeko bai beharrezko ez dutelako, inolako prestakuntzarik gabe, kirol oinetako zahar batzuk jantzi eta lasterka aritzen dira. Badira bakarrik doazenak, bikote ala senitartekoekin korrika egiten dutenak, eta baita koadrila, kirol talde edo dena delakoan batera dabilzanak ere. Mozorrotzen direnak ere ikus ditzakegu. Desberdintasunak badira denen artean, baina azalekoak.

Gure herrian ere korrikan jende mota asko ikus daiteke egun horretan, baina bat nagusitzen da, San Silbestrea lehia moduan ikusten dutenak. Donostian, agian hiria izateak ematen duen anonimotasunagatik, inori ez dio axola nola, zergatik edota ze denboratan egiten duzun korrika. Orion berriz...



Irakurtzen jarraitu nahi?

<http://karkara.eus/iritziak/>

<http://karkara.eus/orio/1485272294649>



Zarautz
Hileta Zerbitzuak

> Hilerrien kudeaketa
> Hileta zerbitzu orokorrak
> Zerbitzu iraunkorra



Harrespil
Hilerri Zerbitzuak



Araba kalea, 35 · ZARAUTZ · Gipuzkoa · Tel.: 943-89 49 37 · Faxes: 943-89 49 41 · e-posta: zarautz@harrespil.net



ELEKTRIZITATEA
Ander Expósito
943 831 774
600 856 728
anderexpoelektrozitate@gmail.com



urbide
iturginak s.l.

Iturgintza - Berogintza

Bekoa Kalea, 4
20800 | Zarautz
943 890 069
urbideiturginak@gmail.com
www.urbide.es

JAUNARTZEAK 2017

Hasi gea zitak ematen konpromisorik gabe etorri gure lanak ikustera eta presupuestoak eskatzera

943831048
610697668
www.fotoramiro.com




Gabon
TABERNA

- ✓ Pintxoak
- ✓ Plater konbinatuak
- ✓ Ogitaratekoak

943 83 06 09



GARMENDIA
INGEIZN AGENTZIA - AHOLKULARITZA - ASEGURUAK

Ibai Ondo, 1
Tel.: 943 834 466 - Fax: 943 132 941
informacion@garmendigestion.com

HAIZE BERRI
taberna-jatebua-kafetegia

Plater konbinatuak, bokafak, hamburgesak, rasoak, eguneko menua...

ostiraletan pintxo potea!

eta etxera eramateko zerbitzua!
943 831 623
Orrika kaledegian, Ertzera 1

TAILER MEKANIKOA AUTO LAN



Pelotari 5, Orio
943 83 00 34

Zure Konfidantzazko
Gertuko Tailerra

BODEGAS



Gailur

1989 BARRIO JA 42940
Tel./Fax: 943 80 91 88
www.bodegasgailur.com

Arabar Ertzera

ZUDUGARAI



Galeriak Txakolina

Tel. 943 83 03 88
Fax 943 83 59 58
bukidzudugarai@buzkalnet.net
www.bukidzudugarai.com



AIRIATZA modas

Eusko Gudariak, 7 • Tel./Fax: 943 83 10 88 • 20810 ORIO



KORTABERRI
arotz lanak

Imanol Ilarramendi
Aia (Gipuzkoa)

kortaberri.arotza@hotmail.com
665 70 33 47



PATXI OLIDEN

Hemengo haragia.
Etxeko produktuak: tripaki, odolki, txekorra, txorizo, kroketek...

Eusko Gudari, 25 Tel. 943 83 00 10



Uztapide eta Lasarte bertsolariak, honi Leitza jaioterrian 1975ean egindako omenaldian.

Oroimenaren kutxa

Orioko Begi Exkela eta Uztapide

Laster hastekoa da Gipuzkoako herri arteko bertsolari txapelketa. Gipuzkoako aurreneko bertso txapelketa 1959an jokatu zen, eta Uztapidek jantzi zuen txapela. Uztapide izatez Ergoiengoa zen, Deba eta Zestoa arteko Uztapide baserrian jaioa; baina badira hainbat kontu nolabait ere Oriorekin lotzen dutenak.

Izena Manuel Olaizola zuen Uztapidek, 1901ean Orion balea harrapatu eta Donostian bandera irabazitako gizonak bezala. Emaztea Kontxi Iturain izeneko emakumea zuen Uztapidek, Aian eta Orion ere badira batzuk abizen horrekin. Uztapidek Gaztelu bertsolaria gorai patzen zuen, bertsolari bat ona baldin bazen hura Gaztelu omen zen. Gaztelu Saikolatik gora dagoen baserria da, hangoa zen bertsolaria.

Eta bertso tarako zaletasuna oriotar batek eman zion Uztapideri. Manuel Olaizolak 1974an liburu bat plazaratu zuen *Lengo egunak gogoan*. Liburuko pasarte batean, aitortzen du nondik zetorkion bertso tarako zaletasuna eta joera: Orioko bertsozale bati erositako bertso paperek eragin zioten grinatik. Jose Antonio Urkia Garate zen bertsozale hura; Begi Exkela deitzen zioten, begi bakarrazuelako.

Hona, Uztapideren hitzetan, Begi Exkelari buruzko pasartea: *Nere bertso tarako afizioa zertatik etorria zan esan bear dizutet. Orioko Begi-Exkela etortzen zan kanta-papelak saltzera, ta guk erosi egiten genizkan. Arruan meza ondorenean izaten zan. Asten zan kantatzen, ta papela dana kantatu arte etzuan batere saltzen. Bazekian ark berak ere ondo kantatzen zuala, ta, papela oraintxe dana pasatzen zuan orduan, asiko zan partitzen, ta aitarene egiteko denboran mordoa saltzen zuan.*

Gero gu ere asten giñan, ba, kantatzen, ta ezin ark bezela kantatu, ta guk esaten genduan orduan: -Arraioa! Orioko Exkelak sartu ziguk ziri ederra! Baña, berriz ere etortzen zanean,

ez genion guk erosi gabe utziko. Orioko tenorra zan ura, ta ark bezelako grazia zuanikan, ez nuan nik sekula ikusi kantatzen. Aren doñua aparta zan. Batere indarrrik egin gabe boza altxatzen zuan. Ark, zenbaitek bezela, etzuan lepoko zañak tiratu bearrik. Arruako plazan kantatzen asten bazan, lotan zeudenak ere esnatuko zituan. Bixta txikia zuan. Papela irakurtzeko, oso urrera begiratu bear izaten zion, baña begietan palta zuana, bozan zeukan sobre.

Gorputzez gizon aundia zan, altua, arpegi luze samarra, buru makur pixka batekin. Metro bat eta irurogei ta amar zentimetro edo larogei izango zan, gizon ederra. Oraindik ere gogoan daukat gizon aren postura, traje arizko batekin-ta kurioso ibiltzen zan; ongi jantzia.

Gu beti ura etortzeko pozak egoten giñan. Ari goizean artutako papela eguardirako buruz dana ikasiko genduan; ta, arratsaldean, papela etxean utzita ere kantatuko genduan. Bertso tarako nere asiera ortitxik izan zan batik-bat.

Nik lenbizi ikasi nituan bertsoak Orioko Exkelari erosi nizkion. Zortzi urte geienaz eukiko nituan artean, gogoan daukat oraindik. Pentsatu besterik ez dago: zortzi urterekin asi ta amaseirekin-edo tabernara joaten asi giñanerako, burua dana bertsoz betea gendukan guk. Eta olaxe asi giñan bertsoan.

Elizako kantorea izan bear zuan. An ere kantatuko zuan ark beste askok añean. Estropada-bertsoak urtero ekarriko zituan ark. Estropadak orduan, oraingo aldean, afan aundia izaten zuten. Irabazten zuanak seguru jarriko zizkan bertsoak baten bati. Ta ura izaten zan orduko bertso-saltzallea, Begi-Exkela alegia. Atzenean, beste danak egiten dutena ark ere egingo zuan. Ezkutatu zan beintzat emendik, eta orain ez da ez Begi-Exkelik eta ez bertso-saltzallerik. Akabo aren doñu ederrak eta bertsoak.

ANORGA TXIBI S.L
KRISTALDEGIA
 -komertzial instalazioak -beira bikoitza
 -segurtasun beirak -dutxa-itxiturak eta irristailuak
 -ispiluak -barandak -kristal mota guztiak...
 Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

ITZALA
kartela jokatze
arropak
 tel. 943 83 12 59

ARISTERRAZU
 jatetxea
 Andatza auzoa - AIA
 Tel. 943 83 45 21

KARELA KIROLDEGIA
 Erriberak 1, 20810 Orio - 943 894 428 - orio@bpxport.es
 Iragarki hau entregatuta kiroldegira
sarrera dohain aste batez
 *Promozioaren baldintza bereziak Kiroldegian

ROSANA
 -ARGAZKI ESTUDIOA-
 fotorosanaarruti@gmail.com
 telf: 943 83 58 45

JATETXEA
Galerna
 Antillako Hondartza 5
 20810-Orio-Tel.:943 89 04 16

ORIA
 hertz klinika
 Anaitzale kalea, 63 beheko
 20810 Orio
 Tel.: 943 83 36 45
 Oria Hertz Klinikak **ORTODONTIA** zerbitzu beira jarri du martxan. Prebentzioa ezinbestekoa dela jakinda, hartu aurre erorkizunean sor daitezkeen arazoak.

EGIN ZAITEZ KARKARA LAGUNTZAILE

K

Izena

Abizenak

NAN

Helbidea

Telefonoa

Eposta

Kontu korrantea

Bete formularioa eta erredakziora ekarri edo karkara.eus/harpidetza helbideko formularioa bete

“Umeekin egotea asko atsegin dut”



Fatima Odriozola

Lardizabal herri eskolako jangelako begiralea

Kaixo, gure eskolako jangelako begiralea den Fatima Odriozolari elkarrizketa egitea pentsatu dugu, egiten duen lana hobeto ezagutzea interesgarria iruditzen zaigulako.

Noiztik zaude jangelan begirale?

Hemen hasi nintzen 2004ean. Gero, urte batzuk pasa nituen beste lan batzuetan, egoera pertsonala zela-eta, berriro begirale lanetan aritzeko deitu zidaten arte.

Jangelako umeak zintzoak al dira?

Beno, nik baietz uste dut. Bihurriak ere badira batzuetan, eta mugituak ere bai, beste tokietako haurrak bezalaxe. Beste eskola batzuetako jangelatan aritu naiz eta ez da alde handirik sumatzen.

Zer moduz dago zure ustez jangela?

Eskola zaharreko jangela txikia gertzen zitzaigun, eta ez zen erosoan hantzen mugitzea, ez guretzat ezta ikasleentzat ere. Oraingoa, berriz, gozamen da: handia, argitsua, eroso...

Gustatzen al zaizu zure lana?

Bai oso-oso gustuko dut, asko disfrutatzen dut. Umeekin egotea asko atsegin dut, bizipoza ematen didatelako.

Beste jangelaren batean egin al duzu lan?

Bai, Zarautzen, baina denbora gutxian egin nuen lan bertan.

Zure ustez janaria goxoa egoten al da jangeletan?

Bai goxoa egoten da, baina ez etxeko janari bezain ona, normala den bezala. Kontutan hartuta milaka bazkalkidorentzako kozinatzen dutela, bazkari duina dela esango nuke.

Zein da jangelako lanaren parterik onena? Eta okerreana?

Onena zuek nola hazten zareten ikustea da: jator, alai eta osasuntsu. Okerreana, aldiz, nik errieta egin behar dudanean, asko kostatzen zaidalako. Beharbada, adinarekin pazientzia galtzen ari naizelako izango da.

Zure ustez zein da jangelako janaririk goxoen?

Txitxirioak arroz integralarekin eta pureak gustatzen zaizkit gehienbat niri.

Aiako jangelan zenbat begirale zaude?

Aurten bost gaude baina batzuetan sei ere izan ohi gara.



Nahikari Eizagirre

Eguberrietako kontsumoa

Eguberriak egun bereziak dira. Jai hauek, afarietan, bazkarietan eta oparrietan bakarrik oinarrituta dauden festak direla argi ikusten dut. Zergatik bilakatu dira festa hauek kontsumo festetan?

Pasa gaitezen, bada, Gabonetako kontsumo gehiegikeriaren gaia atalez-atal aztertzeraz.

Gabon hauetan, ni gogoratzten dudana eguberri guztietan bezala, denda guztiak leporaino beteta egon dira. Gainera, ikusten duzun jende guztia, edo gehiena, gauzak itxurarik gabe erosten egoten da. Eguberrien helburua ez da kontsumitzea, familiarrekin egotea baizik.

Hari beretik, oparrietara jotzen badugu gauza berdina gertatzen da, behar duguna baino askoz gehiago erosten dugu. Niri amonak esaten dit berei erregeek galtzerdi pare bat bakarrik ekartzen zietela. Orain aldiz, lau opari ekartzen dizkigute gutxienez eta zer nolako opariak gainera.

Horrekin batera, eguberrietan mahaiaren inguruan eseritzen garen jatordu horietako batean jaten duguna, urtean zehar, edozein egun normalean, jaten dugunaren lau aldiz beza izan ohi da.

Laburbilduz, argi dago Gabonetan gehiegizko kontsumoa egiten dugula.

Lurrazpiko edukiontziak mantendu egin behar al dira?



21 irla daude Orion, lurperatutako 94 edukiontzi guztira . KARKARA

Lurrazpiko edukiontziak hiriko hondakin solidoak biltzeko erabiltzen dira. Zaborra lurpean geratzen da, edukiontzia bera ere lurrazpian baitago. Plataforma igogailu baten gainean daude edukiontziak, hormigoizko zulo baten barruan; kanpoan geratzen den bakarra, beraz, hondakinak botatzeko buzoia da.

Lurrazpiko edukiontziak irlatan biltzen dira eta hainbat edukiontzi eta buzoi dituzte. Orion, gaikako bilketa egiteko bost buzoi dituzte irla gehienek: papera, beira, ontzi arinak, errefusa eta organikoa.

Hormigoizko zuloaren barruan, metalezko estruktura batean daude edukiontziak. Plataforma igotzeko sistema hidraulikoa edo garabi-beso bidezkoa izan daiteke.

Aurreneko lurpeko edukiontziak Eusko Gudari kalearen eraberritzeko lanen lehen fasean jarri ziren. Geroztik, sortu eta urbanizatu diren eremu berri

guztietan irlak jartzea erabakia zuten.

Lurrazpiko edukiontziak Orion

Orion, guztira, lurperatutako 94 edukiontzi daude. Horietatik 72 hidraulikoak dira eta 12 Solrie motakoak. Edukiontzi horiek guztiak 21 irlatan daude banatuta. Lehen irlak 2002an jarri ziren, Eusko Gudariko I. faseko eta Arrantzale kaleko lanekin. Lau irla jarri ziren orduan, hamasei edukiontzirekin. 2004an beste irla bat jarri zuten Eusko Gudari kalean. 2006an zazpi irla gehiago jarri zituen Udalak, 2007an bost, 2010ean bi eta 2011n beste bi.

Abantailak eta kostua

Lurgaineko edukiontziekin alderatuta, hainbat abantaila dituzte lurrazpikoek.

Batetik, estetikoak: zaborra lurpean dagoenez, hondakinak kalean egoteak eragiten duen inpaktu estetikoak desagertu egiten da. Edukiontzien ordezkariak daude lurrazalean; horrela, es-

pazio gutxiago hartzen dute eta inguruan ibiltzea errazagoa da.

Higienikoagoak dira, bestetik: lurpeko edukiontziak gomazko itxitura duten taparekin daude babestuta. Horrek usain txarrak kanpora ateratzea ekiditen du.

Horrez gain, lurpeko edukiontzien buzoiak irisgarriagoak dira edozein erabiltzailerentzat.

Darabilen teknologia dela eta, lurpeko edukiontzien lurgainekoek baino kostu handiagoa dute, mantenimendu lanak direla eta.

2016an Orioko Udalak lurrazpiko edukiontzien mantenu zerbitzua kontratatzeko lehiaketa egin zuen. Equinord S.L. enpresari eman zitzaion esleipena ekainean. Bi urteko kontratua sinatu zuen Udalak eta kostua, guztira, 35.236,30 eurokoa da.

2018tik aurrera Urola Kostako Udala Elkarteak kudeatuko du eskualdek zabor bilketa zerbitzua.



EAJ

Lurrazpian mantendu

Gaikako bilketa guztia Urola Kostako Udal Elkarteak egingo du 2017tik aurrera. Bailara guztiaren bilketa batzeko eta herri ba-koitzak dituen bilketa sistemekin bat egiteko, egokitzapenak egin beharko dira Orion. Egokitzapenak egin behar horretan, edukiontzia lur azpian mantendu edo ez erabakitzea tokatu da, eta noski, honetan ere, guztiok ez dugu bat egiten.

Hainbat irizpide lehenetsi daitezke erabakia hartzerakoan bai-na Orioko EAJk higieena, irisgarritasuna eta eraginkortasun irizpideak lehenestuz, edukiontzia lur azpian mantendu behar direla uste du.

Bere garaian edukiontzia lurperatzeko hartutako erabakiare-kin koherentea da, gainera, jarrera hau.

Jakinik herriak dituen motore ekonomiko nagusiak turismoa, ostalaritza eta zerbitzuak direla, edukiontzia lurrazpian man-tenduta herria txukun mantenduko da, eta batetik bestera ero-so ibiltzen jarraitu ahalko dugu.



Orain

Behar beharrezkoekin nahikoa

Orioko herrian 21 lurpeko edukiontzien eremuek guztira 85 pla-taforma dituzte. 2004an (4) hasi ziren jartzen eta progresiboa izan da beraien hedapena: 2006 (9), 2007 (4), 2010 (2), 2011 (2). Beste garai eta egoera ekonomiko hobe bat bizi genuen ga-raian hartutako erabakia.

Egokiak eta txukunak dira baina inguruko beste herrietan (Za-rautz, Getaria, Zumai) ez dira ikusten. Nola ez daukate hain egokiak eta txukunak izanda? Motor bat dutelako eta horrek suposatzen duen mantenu kostuak altuak direlako. Orion za-bor bilketa arruntak urtero 40.000 euroko kostua du platafor-mak mantentzea.

Gainera, Urola Kostako udalek zabor bilketa era mankomuna-tuan egiteko akordioa hartu dutenez, lurpeko edukiontzien egokitzapena 350.000 euro kostatuko zaigu oriotarrei. Arra-zoizkoena ematen duten zerbitzuagatik behar beharrezkoak direnak utzi eta besteak kentzea da arrazoizkoena.



EH Bildu

Benetako arazoari egin behar zaio aurre

Gure arbasoak ama lurrak ematen zientetik bizi ziren, ingurune-arekin harreman estuan. Gaur egungo gizarteak natur baliabi-deak bere beharretara egokitzen ditu ingurumenean izan di-tzakeen ondorioetan sakondu gabe. Lurpeko zaborrontzien mantenua urtean 44.000 eurokoa da. Ontzi horiek Mankomu-nitatearen beharretara egokitzeak 350.000 euroko gastua izango du. Gainera, Zubietako errauskailuak oriotarrontzat ia 8 milioi euroko kostua izango du -35 urteetan-. Mankomunitate-ko gainontzeko herriek hautatu duten edukiontzi sistematik al-dentzea garesti ordaindu beharko dugu oriotarrok eta ez dio zaborren kudeaketaren benetako arazoari aurre egingo. Helbu-rua, hondakinen kudeaketa jasangarria eta natur baliabideen oreka bultzatzeko akordioak adostea izan behar du: zaborrak murriztu, berrerabili eta birziklatzea. Krisi ekonomikoaren er-dian, zerga eta tasak lurrazpiko kontenedoretan eta errauste-gietan gastatzeko igotzea, adar jotze bat da.



PSE-EE

Dena ala ezer ez?

Oriok 38 zabor-bilketa puntu ditu eta horietatik 23 lurrazpiko ir-lak dira. Urola Kostako herrietatik lurpeko zaborrontzi gehien dituen gara, nabarmen. Zaborra lurrazpian jartzeak baditu onurak, higieena eta irisgarritasun handiagoak, adibidez. Arazo nagusia mantenimendu kostua da, 40.000 euro urtean. 2018tik aurrera Udal Elkarteak egingo du zabor bilketa. Horrek, gaur egun ditugun lurpeko edukiontzia kamioi berriek erabil-tzeko moldatzea dakar. Moldaketa horrek 350.000 euroko kos-tua izango du. Orain Udalak erabaki behar du horiek mant-en-tzea edo kentzea. Orioko PSEk zonaldekako azterketa bat egite-aren aldeko apustua egiten du, izan ere, leku batzuetan mantendu daitezkeela uste dugu eta beste batzuetan kendu. Horrek mantenu kostuak jaitsiko lituzke, baita moldaketena ere. Udalak ez du asko aurreztuko, baina gehiegizko gastuak murrizten hasi behar dugu. Azken finean, handik eta hemendik zerbait aurrezteak beste gauzak egiteko aukera emango liguke

Gai guztiak onartu zituzten Zaharren Babeslekuko batzarrean



Urtarrilaren 11n, asteazkenean, urteko batzarra egin zuen Zaharren Babeslekuak Orioko Kultur Etxean. Ehun bazkide inguru bildu ziren areto nagusian eta gairerendako puntu guztiak onartu zituzten.

Ekitaldi ekonomikoaren itxiera eta 2016. urteko balantzea aurkeztu zuen Zuzendaritza Batzordeak. 907 euroko onurarekin amaitu du urtea Babeslekuak, eta 2017rako 76.000 euroko aurrekontua onartu zuen zuzendaritzak.

Zuzendaritza Batzordean aldaketak ere egin zituzten jubilatuek. 2017an Joxe Manuel Arrillaga izango da idazkaria eta Joxe Manuel Sarasua diruzaina. Horrela geratu zen, beraz, Zaharren Babeslekuko

Zuzendaritza Batzordea:

- Presidente: Txomin Iribar
- Presidenteordea: Maribel Agirre
- Idazkaria: Joxe Manuel Arrillaga
- Diruzaina: Joxe Manuel Sarasua
- Batzordekideak: Maria Jesus Ibarreta eta Joaquina Gambero

Bazkide kuota kobratu dute

Zaharren babeslekuak 924 bazkide ditu. Horietatik 247 bazkide 80 urtetik gorakoak dira; beraz, ez dute kuotarik ordaintzen.

2017ko kuotak urtarrilaren 16tik 20ra kobratu ditu Babeslekuak. Oraindik ordaindu ez dutenei Babeslekutik pasatzeko eskatzen die Zuzendaritza Batzordeak.

Arantzazura irteera

Otsailaren 22an Arantzazura irteera egingo dute Babeslekuko bazkideek. Urtero bezala, hamaiketako egin eta, atzetik, meza entzungo dute santutegian, 12:00etan. Ondoren, Adunako Aburuza sagardotegian bazkalduko dute. Irteera 9:00etan izango da.

Txartelaren prezioa 35 eurokoa izango da eta otsailaren 13an egingo dute salmenta, 16:00etatik 18:00etara Babeslekuan bertan.

Txartela erosteko bazkide txartela eguneratua izan behar da. Autobus baterako baino jende gehiagok ematen badu izena, zozketa egingo da; 30 lagunetik aurrera bigarren autobusa jarriko dute.

Jendartea

TAOko isuna merkeagoa da lehen 48 orduko epean ordainduta

Urte berriarekin batera jarri da martxan TAO sistemako isuna ordaintzeko aukera berria. Horrela bada, autoa eremu urdinean aparkatu eta isuna daukan edonork, 15 euro ordainduta kitatuko du zorra, baldin eta lehen 48 orduko epean sartzen badu dirua Orioko Udalaren kontu korrontean. Isunaren atzeko aldean daude idatzita Udalaren datuak eta beste argibide batzuk.

Orain artean gidariek ez dute horretarako paradarik izan. Isuna jasoz gero, errekurtsioa jarri ezean, 40 euro ordaindu behar izaten zen. Modu horretara isunak azkarrago kobratuko ditu Udalak, eta merkeagoa izango da gidarientzat.





Gizartea

Herri galdeketa egin ahal izateko nahikoa sinadura lortu ditu Balizak

2016ko abenduaren 16an Urola Kosta eskualdeko aurkezpena egin zuen Gure Esku Dagok Zarautzen. Egun hartan bertan hasi zuen sinadura bilketa Orioko Baliza Elkartek, 2017ko maiatzaren 16an herri galdeketa egin ahal izateko. Bi hilabeteko epean, 16 urte edo gehiago dituzten herritarren %10en sinadura lortzeko helburua zuen Balizak herri galdeketa aurrera eramateko baldintza gisa. Euskal Autonomia Erkidegoko datu estatistiko arabera, 5.901 biztanle zituen Oriok 2016ko urtarrilaren 1ean. Horrenbestez, 500 sinadura inguru lortu behar izan ditu Balizak; hoguei egun nahikoa izan dituzte horretarako. Maiatzeko galdeketa arte beste hainbat ekimen ditu aurreikusita Orioko Gure Esku Dagoko taldeak.

Gizartea

Apirilaren 5ean pasako da 20. Korrika Oriotik eta Aiatik



BatZuk lelopean, martxoaren 20an hasiko da Otxandion 20. Korrika eta Nafarroa aldera egingo du handik. Erriberako lurretatik pasata, iparraldera joko du Erronkari eta Zaraitzuko ibarretan barna ibiltzeko. Donibane Garazi eta Baionatik ere igaroko da. Mauletik pasa eta Gipuzkoako kostaldera abiatuko da ondoren. Apirilaren 5ean egingo diogu ongi-etorria Orion, ordu txikitik. 00:45ak inguruan pasako dela aurreikusi dute antolatzaileek. Zarautz aldera joko du gero; Xuaiko aldapa igotzea tokatuko zaigu horrenbestez beste behin ere. Lekukoa eskuz esku pasaz, atsedetik gabe, jarraituko du Korrikak apirilaren 9a arte. Iruñeko kaleetan zehar egingo ditu 20. edizioak azken kilometroak. Hainbat dira Korrika laguntzeko moduak: ibilbideko kilometroa erostea, korrikako materiala erostea edota Korrika laguntzailea izatea, 12 euroren truke. Lagundu nahi duenarentzat, batzordea antolatua du Orion Korrikak eta bilera irekiak egiten ditu.

Kirola

XXIII. Oriaren Traineru Jaitsiera

lazko edizioak lagatako zuloaren ondoren, ondo bi-dean, otsailaren 11n izango da XXIII. Oriaren Traineru Jaitsiera. Behin behineko izen-emateari erreparatuz, 27 talde arituko dira lehian gizonezkoen maila absolutuan, VI. Babyauto bandera astintzeko gogoz. Nesketan, 13 taldek neurtuko dituzte indarrak III. Babyauto bandera nork eramango etxera. Beterano, jubenil misto eta Llagutak ere arituko dira arraunean. Bitartean, herriko tabernetan egin daitezkeen apustuekin berotu nahi dute giroa arraun elkartekoek.

Kultura

Atorrasagasti anaiak musean txapeldun

Urtarrilaren 21ean jokatu zen Euskal Herriko IX. Mus Txapelketaren baitan Orioko kanporaketa. Sei bikote bildu ziren Kolon Txikin elkarren kontra lehian aritzeko. Ustela ustelaren atzetik irabazita, Jose Ignazio Atorrasagastik eta Lauri Atorrasagastik osatutako bikotea gailendu zen azkenean. Otsailaren 25ean Ibarako frontoian jokatuko da Gipuzkoako herrietako ordezkarien arteko kanporaketa. Han izango dira Atorrasagasti anaiak hordago eta enbido artean.

Gizartea

Gaztetxea egokitzen ari dira

Gaztetxeko eraikina segurtasun eta osasungarritasun baldintzetara egokitzeko lanen 2. fasea bukatzeaz du Orioko Udalak. Hartziko hormak sendotu eta drainatu, emergentziako irteerak egokitu, suteen aurkako neurriak bermatu, argiztapena eta aireztapena hobetu eta komunak egokitu dituzte. Aizperro igeltserritzak egin ditu lanak, 90.000 euro inguruko kostuarekin. Bestalde, ordainetan Udalak eraikinaren zati bat beretzako gordeko du.

■ AZOKA

Orio

Erakusketa

■ Otsailaren 6tik 24ra, Elene Tamayoren erakusketa Kultur Etxeko areto nagusian.

Kirola

■ Otsailaren 5ean, Kros Txikia Zaraguetak antolatuta, 12:00etan Izen-ematea: 649 894 052 telefonoan.

■ Otsailaren 11n, Oriaren XXXIII. jaitsiera.

Dantza

■ Otsailaren 11n, Musika Eskolako dantza emanaldia, 17:00etan Karelana.

Zinea

■ Otsailaren 16an, Jon Maiaren Gutik Zura dokumentalaren proiektzioa, 19:30ean, Kultur Etxean.

Kontzertua

■ Otsailaren 24an, Lou Topet taldearen emanaldia, 22:30ean, Kultur Etxean.

Inauteriak

■ Otsailaren 25ean, Inauteriak.

Bingoa

■ Asteazkeneko bingoa Kultur Etxean.

Traste zaharrak

■ Otsailaren 8an eta 22an, traste zaharren bilketa. Aurrez Udaletxera deitu behar da: 943830346.

Mendi lasterketa

■ Martxoaren 12an, Orioko Mendi Lasterketa, 9:30ean. Izen-ematea: kirolprobak.com.

Aia

Hitzaldia

■ Urtarrilaren 28an, energia burujabetzaren inguruko hitzaldia, 10:30ean Kultur Etxean. Hizlariak: Fernando Bengoetxea (Ekain taldea) eta Rafa Irastorza (Uhin). 16:00etan, Energetikoki buru askea den etxebizitza bati bisita.

Erromeria

■ Urtarrilaren 29an, erromeria Aristerrazun, 18:30etik 21:30era, Imanol eta Unai trikitilariekin.

Podologoia

■ Otsailaren 25ean podologoaren kontsulta, sendagilearen etxean. Aurrez ordua hartzeko: 943131144.

Mendi lasterketa

■ Martxoaren 5ean, Aiako Mendi Lasterketa, 10:30ean. Izen-ematea: kirolprobak.com.

■ ITSASOA

EGUNA	ITSASGORA	ITSASBEHERA	ILARGIA
01	7:05 eta 19:29	0:50 eta 13:19	☾
02	7:49 eta 20:16	1:34 eta 14:05	☾
03	8:40 eta 21:12	2:23 eta 14:58	☾
04	9:42 eta 22:21	3:22 eta 16:01	☾
05	10:59 eta 23:42	4:33 eta 17:14	☾
06	12:23 eta ____	5:53 eta 18:30	☾
07	1:01 eta 13:38	7:10 eta 19:39	☾
08	2:08 eta 14:40	8:16 eta 20:38	☾
09	3:04 eta 15:33	9:11 eta 21:29	☾
10	3:52 eta 16:18	9:59 eta 22:14	☾
11	4:36 eta 17:00	10:43 eta 22:56	☾
12	5:17 eta 17:39	11:23 eta 23:35	☾
13	5:55 eta 18:16	12:02 eta ____	☾
14	6:32 eta 18:52	0:14 eta 12:39	☾
15	7:08 eta 19:28	0:51 eta 13:16	☾
16	7:45 eta 20:06	1:30 eta 13:54	☾
17	8:28 eta 20:48	2:11 eta 14:36	☾
18	9:11 eta 21:41	2:57 eta 15:25	☾
19	10:12 eta 22:52	3:54 eta 16:26	☾
20	11:32 eta ____	5:06 eta 17:40	☾
21	0:15 eta 12:54	6:24 eta 18:53	☾
22	1:25 eta 13:56	7:31 eta 19:52	☾
23	2:19 eta 14:44	8:24 eta 20:39	☾
24	3:01 eta 15:24	9:07 eta 21:20	☾
25	3:40 eta 16:01	9:45 eta 21:58	☾
26	4:16 eta 16:36	10:22 eta 22:35	☾
27	4:52 eta 17:12	10:59 eta 23:12	☾
28	5:28 eta 17:49	11:37 eta 23:51	☾

■ ZAINTZAKO BOTIKAK

OTSAILA

- 1ean, Etxeberria
- 2an, Mutiozabal
- 3an, Lasa
- 4an eta 5ean, Larrañaga
- 6tik 10era, Lasa
- 11n eta 12an, Iriarte
- 13an, Etxeberria
- 14an, Zulaika
- 15ean, Izpizua
- 16an, Iturria
- 17an, Iriarte
- 18an eta 19an, Esparza
- 20an, Zulaika
- 21ean, Etxeberria
- 22an, Lasa
- 23an, Iriarte
- 24an, Esparza
- 25 eta 26, G. Artiñano
- 27an, Izpizua
- 28an, Zulaika

- Izpizua:** Urdaneta kalea, 8. 943133183 Zarautz
- Etxeberria:** Gipuzkoa kalea, 17. 943832398 Zarautz
- Mutiozabal:** Kale Nagusia, 12. 943832970 Zarautz
- Larrañaga:** S. Prantzisko, 16. 943133814 Zarautz
- Lasa:** Herriko plaza. 943830936 Orio
- G. Artiñano:** Zigordia kalea, 17. 943134019 Zarautz
- Iriarte:** Zinkunegi, Pilartxo Enea. 943132983 Zarautz
- Zulaika:** Bizkaia kalea, 41. 943133994 Zarautz
- Esparza:** Santuturri plaza, 5-6. 943504783 Zarautz



sinergia

FISIOTERAPIA

IKERKETA

LESIONAK: BIHURDURAK, TENDINITISAK, ZAINTIRATUAK, KONTRAKTURAK, HANKA HANDITUAK, ARTROSIA, ALTERAZIO POSTURALAK, BIZKAR HEZURREKO ARAZOAK, ARNAS GAIXOTASUNAK HAUR ETA HELDUETAN, LESIO NEUROLOGIKOAK, HAURDUNALDIRAKO TRATAMENDU BEREZIAK, ERDITZE ONDORENGO ERREKUPERAZIOA

TRATAMENDUAK: TERAPIA MANUALA, OSTEOPATIA, RPG, MASAJEAK, DRAINATZE LINFATIKOA, ARNAS FISIOTERAPIA, KINESOTAPING-A, PILATES, ABDOMINALETAKO GIMNASIA HIPOPRESIBOA (GAH)

IBAI ONDO 1, BEHE-OINA
TF.: 943 130 577

WWW.SINERGIA-WEB.COM
685 718 595

AZOKA

Iragarkietarako txokoa. Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943 83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com. Merke asko, gainera, doako zerbitzua baita gurea.

Alokairua

- Pisua alokatu nahi dut, gehienez bilogelakoa. Tf: 943249613
- Gela edo etxebizitza merkea alokatu nahi dut. Tf: 674811827

619403691

- Umeak zaintzeko eta etxe-ko lanak egiteko emakumea behar da. Disponibilitadea behar da. Tf: 677348103

Lan eskaera

- Neska lan bila zaharren zaintzan. Esperientzia eta paperak ditut. Tf: 674123293
- Ordukako lan bila dabilen mutila naiz. Garbiketan eta

helduen zaintzan. Tf: 603644555

- Asteburuetarako lan bila nabilen neska naiz. Helduen zaintzan zein garbiketan lan egin dezaket eta paperak ditut. Tf: 663117579

- Gizonezkoa lan bila. Base-rrian eta ganaduarekin espe-rientzia. Landako lanak egi-teko gai. Tf: 674814755 -Jorge Ponce-

Salgai

- Aiako aurtengo intxaurrek salgai: 4 kilo, 20 €, tamaina onekoak, etxera eramanda. Pati deitu: 943132131 edota 634 424 887.
- Arrautza ekologikoak salgai: 5€ dozena arrautza. Tf: 656772428.
- Babes Ofizialeko Etxebizitza bat nahi? Andatza auzoan, 2 logela, trasteroa eta garaiea. 115000 euro. Tf: 649017627

.....
"Handitan,
Kontxako Bandera
irabazi baietz!"
.....

EMAN INDARRA ZURE SEME-ALABEI

Matrikula epea: Urtarrilaren 30etik otsailaren 10era
Aurkezpen bilera eskolan: Urtarrilaren 26an (17:00 Euskaraz - 18:30 Gaztelera)
Eskola zabalik: Urtarrilaren 28an (10:30etatik 13:00etara)
Tel. 943 89 40 52 **E-posta:** 012137aa@hezkontza.net


IPI Zaragueta
Herri Eskola


orioko
CURRICULO